

**HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA**  
**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua**  
Ikasturtea: 2021-2022

***EZ EUSKADI EZTA EUSKAL HERRIA, EUSKAL SELEKZIOA. ZER EZKUTATZEN DA  
IZENAREN BORROKAREN ATZEAN?***

EGILEA: Iñaki Sagarna Urzelai

ZUZENDARIA: Francisco Javier Ruiz de Arcaute Graciano

2022eko maiatzaren 1

## AURKIBIDEA

|                                                  |    |
|--------------------------------------------------|----|
| Laburpena.....                                   | 2  |
| Sarrera.....                                     | 5  |
| Gaiaren egungo egoera .....                      | 11 |
| Euskal futbol selekzioaren historia laburra..... | 15 |
| Afera Eranskina D.....                           | 21 |
| Ondorioak .....                                  | 25 |
| Erreferentziak .....                             | 27 |
| Eranskinak .....                                 | 32 |
| Eranskinak A .....                               | 32 |
| Eranskina B .....                                | 32 |
| Eranskina C .....                                | 33 |
| Eranskina D .....                                | 33 |
| Eranskina E .....                                | 34 |
| Eranskina F.....                                 | 34 |
| Eranskina G .....                                | 35 |

## Laburpena

Euskal Futbol Federazioak (EFF) 1993. urtetik urtero antolatzen zuen lagunarteko norgehiagoka ez zen jokatu 2008-2010 urte bitartean. Arazoa konbinatuaren izenaren baitan zegoen. Federazioak, Euskal Gobernuako Kirol Zuzendaritzaren babesarekin, *Euskadi* izendapena hobesten zuen, eta jokalaria, Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldea (ESAIT) plataformaren laguntzaz, aldiz, *Euskal Herria*. Akordio erdietsi ez eta partida jokatzeari muzin egin zioten jokalariek. Lan honek izenaren aferaren atzean ezkututzen dena aztertzea du helburu.

Hipotesia, euskal nazionalismoaren barnean hegemonia kultura erdiesteko borroka dela argudiatuko da. Kirola eta nazionalismoaren arteko harremanak nola gauzatzen diren ikusiko da lan honetan zehar eta Euskal Selektzioa ikur nazional bat balitz ulertuko dugu. Nazionalismoaren teoria ezberdinak konbinatuko dira hori argudiatzeko. Ikurrok gizartearen nazionalizazioa bideratzeko balio dute eta nazionalizatzeko modua Alejandro Quirogak (2013) eskaintako estrukturaren baitan ulertuko dugu. Eztabaidan parte hartzen duten agente guztien xedea selektzioak proiektu dezakeen nazioaren kapital sinbolikoa bereganatzea da. Batzuek zein bestek nazio proiektu edo lurraldekotasun konkretu bat edo beste aldarrikatzen dute eta sinbolismoaren lehiaren azterketa bere testuinguru konkretuan kokatuko dugu.

Lehendabizi nazionalismoaren inguruko teoriak aztertuz zein eskola historikotan kokatzen garen adieraziko da. Ondoren, kirola eta nazionalismoaren inguruko eta Euskal Futbolaren inguruko azterlanen egoerari gainbegira bat emango zaio. Segidan, euskal futbolaren hastapenak aztertu eta oso laburki Euskal Selektzioaren historia kontatuko dugu. Ondorioetara salto egin aurretik, afera nola egituratzen den, eta posizio bat edo beste defendatzeko argudioak azalduko dira. Behin hori eginda, gatazka bere momentu konkretuan kokatzen saiatuz bukatuko dugu lana.

**Hitz gakoak: Euskadi, Euskal Herria, Euskal Selektzioa, futbola, nazionalismoa.**

## Resumen

El partido amistoso que venía organizado la Federación Vasca de Fútbol (FVF) ininterrumpidamente desde 1993 no se jugó durante los años 2008-2010. El problema residía en la denominación del combinado. Mientras que la Federación con el respaldo de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco presionaba a favor de la denominación *Euskadi*, los jugadores junto con la plataforma Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldea (ESAIT) abogaban por el nombre de *Euskal Herria*. Al no alcanzar un acuerdo los jugadores se negaron a jugar. El objetivo de este trabajo es iluminar lo que se esconde detrás de esta pelea por el nombre.

Como hipótesis argumentaremos que la lucha por la denominación es un claro ejemplo de la lucha por la hegemonía cultural dentro del nacionalismo vasco. A lo largo de este trabajo se verá cómo se materializan las relaciones entre el deporte y el nacionalismo y entenderemos la Euskal Selekzioa como un símbolo nacional. Para defender nuestro razonamiento presentaremos diferentes teorías del nacionalismo. Los símbolos nacionales sirven para orientar la nacionalización de la sociedad, y por eso nos centraremos en la estructura de nacionalización presentada por Alejandro Quiroga (2013). El objetivo de los agentes participantes en el debate es captar el capital simbólico que pueda proyectar la selección para su propio beneficio. Tanto unos, como otros reivindican un proyecto nacional y una territorialidad concreta y para entender mejor la discusión situaremos el debate en su contexto.

El trabajo se estructura de la siguiente forma: primero, analizaremos las diferentes escuelas históricas del nacionalismo, indicando en cual de ellas nos colocamos. Después, estudiaremos el estado del arte del fútbol y nacionalismo, centrándonos en el caso del País Vasco. A continuación, y combinada con una explicación de los orígenes del fútbol en el País Vasco, ofreceremos una breve historia de la Euskal Selekzioa. Para terminar, antes de saltar a las conclusiones, definiremos los argumentos para defender un nombre u otro, situando la polémica en su debido contexto.

**Palabra clave: Euskadi, Euskal Herria, Euskal Selekzioa, fútbol, nacionalismo.**

## **Abstract**

The friendly match organized by the Basque Football Federation (FVF) uninterruptedly since 1993 was not played during the years 2008-2010. The problem lay in the name of the team. While the FVF, with the backing of the Basque Government's Sports Department, was pushing for the name *Euskadi*, the players, together with the Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldea (ESAIT) platform, were advocating in favor of the name Euskal Herria. When no agreement was reached, the players refused to play. The aim of this paper is to illuminate what lies behind the fight about name.

As a hypothesis we will argue that the fight over the name is a clear example of the struggle for cultural hegemony within Basque nationalism. Throughout this paper we will see how the relationship between sport and nationalism materializes. We understand the Euskal Selekzioa as a national symbol. To defend our reasoning, we will present different theories of nationalism. National symbols serve to guide the nationalization of society, and for this reason we will focus on the nationalization structure presented by Alejandro Quiroga (2013). The objective of the agents participating in the debate is to capture for their own benefit the symbolic capital that the selection can project. Both claim a national project and a specific territoriality and to better understand the discussion we will place the debate in its due context.

The paper is structured as follows: first, we will analyze the different historical schools of nationalism, indicating in which of them we place ourselves. Then, we will study the state of the art of soccer and nationalism studies, focusing on the case of the Basque Country. Next, and combined with an explanation of the origins of soccer in the Basque Country, we will offer a brief history of the Euskal Selekzioa. Finally, before jumping to the conclusions, we will define the arguments to defend one name or another, placing the controversy in its proper context.

**Key words: Euskadi, Euskal Herria, Euskal Selekzioa, soccer, nationalism.**

“Arratsaldeko zazpirak Katedralean  
eguna ta momentua iritsi dira  
jokalariak zelai orlegian daude  
dena listo, dena prest  
hastera doa: Euskadiiii! (Txapelpunk, *Euskadi*, 2000).”

## Sarrera

2003ko abenduaren 27an zortzi urte besterik ez nituen. Zuzenean eta lehendabizikoz, egun hartan bertan ikusi nuen Euskadiko selekzioko hamaika mutil munduko beste herrialde bateko hamaikakoaren aurka jokatzen. Uruguaiko selekzioa zuten aurrean. Partida hasi baino lehen, arratsaldean zehar, buruz ikasi nuen Txapelpunken *Euskadi* kanta, baina, arratsaldeko zazpiak beharrea gabeko zortzi eta erdietan jokatu zuten bi taldeek. Ondo ospatutako bi zarata handi entzun ziren iluntzean zehar eta gustura atera nintzen San Mamesetik guraso eta anaiarekin batera. 2-1 irabazi genuen. Laurok makina bat aldiz *EUSKADI!* oihukatu ostean eztarriko minez ginen. Bizi izandako emozioek zirela eta, urteak joan eta urteak etorri abenduko partida falta ezineko nahitaezko ekitaldia bilakatu zen niretzat. Tradizio.

Etxeko taldeak *Selekzio bat – Ofiziala* idatzirik zuen pankarta atera zuen partida hasi aurretik. Argi eta garbi, ofizialtasunaren alde egindako oihua. Hurrengo urteetan, antzeko aldarriarekin zelairatu zen Euskadi. 2007ko abenduaren 29an konbinatu Katalanaren aurka jokatu zuten partidari bi taldeak zelairatu ziren ofizialtasuna eskatuz: *Euskal Herria, nazio bat selekzio bat. Catalunya, una nació una selecció* (Erans.A). Lema hartan idatzita zegoen bezala, *Euskadi* beharrea, *Euskal Herria* izenarekin plazaratu ziren jokalaria eta baita jokatu ere; alabaina, hurrengo urterako, izendapena berriro aldatu zuen Euskal Futbol Federazioak. Ondorioz, izenaren baitan, jokalaria oldartu eta Federazioarekin izandako ika-mikak, bi urtez eragotzi zuen niretzat eta baita Euskal lurraldeetako jende askorentzat tradizio bilakatu zen partida jokatzea. 1993. urtetik, gutxienez, urtero partida bat hutsik egin gabe zegoen selekzioak ezin izan zuen bere hitzordua bete bi urtez. Emakumezkoen kasuan, partidak 2006. urtetik zeuden abian eta haien geldialdia luzeagoa izan zen, lau urtez egon baitziren jokatu gabe.<sup>1</sup>

Izenaren inguruan izandako eztabaidaren atzean ezkututzen dena aztertzea da lanaren xedea. Izenak izana daramala ongi dakigu gure lurraldean eta horrexegatik aferaren benetako oinarrien nondik norakoak ezagutu nahi dira, hau da, zergatik gertatu zen galderari erantzun nahi zaio. Are gehiago, jakinik kalapita itxita, edo gutxienez, *stand by* geratu dela egun. Izen aldaketa izan zen, bai, baina, lehian zeuden bi izendapenetatik bat ere, ez *Euskadi* ezta *Euskal Herria*, ez da gailendu. Euskal selekzioa izenpean jokatzen baitu futbol konbinatuak gaur egun. Izenaren eztabaidaz haratago, argi geratu dena hurrengo hau da: EAEko EFFk

---

<sup>1</sup> Gizonezkoen kasuak izan zuen inpaktu handiena eta horregatik zentratu nahiz batik bat gizonen partidetan. Hala ere, jokalariek helarazitako komunikatuetan emakumezkoak gizonezkoen pare aritu ziren.

ofizialtasunaren aldeko konpromisoa hartu duela. 2018ko abenduan Durangoko bileran ia aho bakar batez (Batzar Orokorreko 44 kideak, 43 alde eta abstentzio bakar bat) EFFko Batzar Orokorrak *Union of European Football Associations* (UEFA) eta *Fédération Internationale de Football Association* (FIFA) ofizialtasun eskaria egiteko mandatua eman zion EFFri. Agindua 2020ko abenduan beteko zen. Luis Mari Elustondok zuzendutako entitateak UEFA eta FIFARI EFFk nazioarteko txapelketatan parte hartzeko eskaria luzatu baitzion (Viñas, 2020).

Nazioarteko bi organismoek ezezkua eman ostean, jarritako alegazioei ezezko borobil batez erantzun berri diote berriro EFFari (Europa Press, 2022). Estatu gabeko federazioak nazioarteko mailan nola integra daitezkeen ulertze aldera, Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientziako (JFKZ) gradua ikasten duen ikasleentzat, kudeaketa ikuspuntutik behintzat, irekitako auzibidea benetan interesgarria bada ere ez da guk aztertuko duguna. Izenaren atzean dagoen borroka kulturala aztertzea da jomuga.

Eskaerari indarra emateko, eta EFF osatzen duten partaideen nahiaz gain, datu historikoak eskaintzen dira. Adibidez, euskal federazioak, izen bat edo bestearekin, 1915. urtetik aurrera darabilela partidak antolatzen. Gainera, aurrerago xeheago ikusiko den moduan, 1937. urtean Euzkadiko Gobernuak antolatutako Euzkadi izeneko konbinatua ere erabiliko da erreferente bezala (Elustondo, 2020). Era berean, izen bat hala bestea defendatzerako garaian Euzkadi bera denominazioaren aurrekari ere izango da. Hau guztia ikusirik, interesgarria deritzot denboran horren banatuta dauden esperientziak batzen dituen argumentuak ulertzeko horiek aztertzea, gure gradua kultura motorraren arlo guztiak ulertzera bideratzen baita. Horra hor, JFKZ graduan eskuratu beharreko hiru kompetentzia:

- Jarduera fisikoari eta kirolari, beren adierazpen guztietan, aplikatutako oinarriko prestakuntza zientifikoa eskuratzea.
- Giza motrizitatearen adierazpen desberdinen egitura eta funtzioa ezagutzea eta ulertzea.
- Printzipio anatomikoak, fisiologikoak, biomekanikoak, portaerari dagozkionak eta sozialak jarduera fisikoaren eta kirolaren arlo desberdinei aplikatzea.

Futbol selekzioak kirol adierazpen mota garrantzitsu bat dira gure lurraldean, baita mundu mailan ere. Gehiegitan eta era akritikoan naturalizat jotzen dira selekzio horiek jokatzearan sortzen dituzten esanahiak. Horiek “kirola eta politika ez dira nahastu behar” dioten adierazpen apolitiko horren politikoak laburbiltzen du hobekien. Ezin gara ahaztu *statu quo*a onartzea ere hautu politiko bat dela. Gainera, milioika pertsona (gure kasuan milaka) mugitzen dira selekzioen partidak ikusten. Hortaz, horrenbeste pertsona mugitzen dituen adierazpen bat ikertzea, berau eragiten duten eta berak eragiten dituen portaera sozialen funtzioak ezagutu eta ulertzea gure graduaren parte direla deritzot. Kultura motorraren esanahia eta funtzioak ikertzea hezkuntzaren baitan kokatzen da, HEZIBERRI 2020 planeko curriculumeko dekretuak (2015) gure arloa txertatzen den kompetentzia nagusian “kompetentzia motorra” hurrengoa zehazten baitigu: “Autonomiaz, *izaera kritikoz*, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren

jardun-eremu motorreko egoerak” eta horixe da lan honek egingo duena, gure gizartean jardun-eremu motorreko arlo kulturalako espresio bat aztertu.

Lana aurrera eramateko lehendabizi erabiliko diren oinarri teoriko eta metodologikoak zehaztuko dira. Gaiaren egungo egoeraren aztertuko da hurrena, eta honen ostean, laburki bada ere, Euskal Herrian futbolaren eta Euskal futbol selekzioaren historia labur batekin jarraituko dugu. Izenaren eztabaidaren nondik norakoak aurkeztu eta eztabaidatu ostean, ondorio labur batzuekin bukatu da lana.

### **Oinarri teoriko eta metodologikoak**

2007-2009. urteen bitartean jasotako eztabaida politikoa erakundeek zein jokalariek prentsan zabaldutako iritzi-artikulu eta komunikatuen bidez egindako adierazpenetatik abiatuz aztertuko da. Adierazpen hauek, nazionalismoa eta kirolaren inguruan egindako ikerketak uztartuz hobeto ulertzen saiatuko gara. Horrez gain, ezinbestekoa deritzot testuinguru politikoari so egitea. Momentuan indar politiko nazionalisten lehia elektoralistak azalpen berri bat eman dakioke izenen afera honi. Izenaren borrokaren atzean euskal nazionalismoaren hegemonia kulturala eskuratzeko lehia ezkututzen dela izango da hipotesia. Ondorioz, euskal selekzioa eta bere izendapena ere, ikur nazional bat balitz ulertzen dugu. Ez da aztertuko izen batek edo besteak duen babes soziala, eragile sozial batzuek izen batekin edo bestearekin adierazi nahi duten sinbolismoa izango da ikerketaren fokua, eta sinbolismo horrekin sortu nahi den narrazio nazionala adieraziko da.

### **Ikurrez ikur nazioa kontatzen**

Nazio-estatuetan egituratzen den egungo munduan futbola da, mendebaldeko munduan behintzat, jarraitzaile gehien dituen kirola. Izaera unibertsal hori dela eta selekzioka jokatzen diren txapelketa internazionalak nazio-estatu horien afirmaziorako eragile nagusienetako bat bilakatu dira (Labaien, 2013). Horren jakitun, erabat ulergarria da politikariek futbolari so egiteko duten joera. Euskal kasua ere ez da joera honetatik kanpo geratu eta denbora luze bat darama euskal nazionalismoak futbolaren bidez, izan klub edota selekzioaren bidez, joko-zelai internazionalera salto egiteko nahian.

Kirolari dagokion azterketan, futbolaren eta nazionalismoen arteko teilakatzea da agian historiografiak gehien ikertu duen fenomeno, eta hau egiterakoan garrantzitsua da zehaztea nazionalismoa ulertzeko zein eskolatan kokatzen garen. Lan honetan paradigma modernisten baliozkotasun estrukturalak onartzen baditugu ere, etnosinbolistek azaleratutako balore abstraktuen garrantzia azpimarratu nahi dugu nazioak ardatzeko garaian. Ikur nazionalak deritze nazioaren inguruko abstrakzioak errealitate materialean gauzatzen dituzten sinboloek eta guk ikur bat balitz ulertzen dugu Euskal Selektzioa. Gainera, argi dugu nazio-izaera etengabe mugimenduan dabilen fenomeno bat dela, etengabe nazionalizatzen baikara. Alejandro Quirogak (2013) proposatutako markoa erabiliko dugu nazionalizatzearen nondik norakoak ulertzeko.



Nazio eta nazionalismoaren ikerkuntzaren ildoan, 1980. eta 1990. hamarkadetan zehar historia sozial estrukturalista edo konstruktibista ere deitutako eskola modernista osatu zen. Benedict Anderson, Ernest Gellner eta Eric Hobsbawm dira eskola honetako buru deigarrienak. Eskola honek nazioak garai modernoetako transformazioek eragindako eraikuntzak direla adierazi eta berai osatzeko arrazoi estrukturalistak plazaratu zituzten. Andersonek nazioa lurralde aldetik mugatua, burujabea eta imajinatutako komunitate politikoa dela diosku. Kide guztiek elkar ezagutu ez arren, elkarren artean komunak dituzten heldulekuak dituen komunitatea hain zuzen ere (Anderson, 1991, 6 or.). Komunitateak elkar banatzen dituen elementuak memoria, etnia, praktika erritualak, eta masen amankomuneko kultura direlarik. Kirol praktikak ere elkar partekatzen diren elementuak dira eta Hobsbawmek “imajinatutako komunitatea” kirolaren bidez batzea errazago dela aldarrikatu du talde bat nazioaren sinbolo bilakatzen baita: “the imagined community of millions seems more real as a team of eleven named people. The individual, even the one who only cheers, becomes a symbol of his nation himself” (Hobsbawm, 1990, 143 or.).

Nazionalismoaren osagai potentzialak dira sinbolo edo heldulekuok eta ondo sukaldatuz gero, nazio sentimendua indartzeko balio dute, nazioaren sostengu bilakaturik. Nazionalismoak nazioen aurretiazkoak direla esan ohi izan da, baina ez da nazionalismoa nazioa osatzean bukatzen, eta horregatik, etengabe eraldatzen dabiren sentimendu bat da. Berau ulertzeko da garrantzitsua nazionalismo hori ardatzen duten helduleku kulturalen ikerkuntza. Gellnerren hitzetan, nazionalismoa bera kulturari izaera politiko bat emateko saioa da (Gellner, 2009, 58), esan bezala, balioak, hizkuntza, memoria eta errito tradizionalen praktikaz hornitzen baita komunitate politikoaren batasuna. Tradizio hauek betikotzen saiatzen badira ere, Hobsbawm dioskunez tradizioak orainaldiko *fabrikazioak* dira (Hobsbawm, 1982). Ez dira ezerezetik sortzen erro bat baitute, baina momenturako instrumentalizatzen dira. Euskal Selektzioa bera horren adibide da. 1993. urtetik etenik gabe jolastutako urteroko partidaren jokatzeko aitzakia bere erro historikoetan jarri eta ondorioz tradizio bilakatu da eta esku artean dugun eztabaidan ere erroei egiten zaio erreferentzia.

Nazio-identitate edo nazionalismoaren eraginaren inguruan eztabaidak handiak izan dira. Hobsbawmen iritziz, goitik behera datorren fenomeno bat da. Aldiz, Anthony Smithek, etnosinbolismoaren paradigmaren sortzaileak, askoz ere elkarreragin gehiago ikusten du elite eta herritarren artean. Ez dira eskuarki eliteen fenomenoak bestela ez bailukete zubi bezala funtzionatuko (Smith, 2009). Gainera, egun nazioak mundu osoan zabalduta daude, eta norbanakoaren identitatea egituratzerakoan ihes ezin dugun identitate markadore bat osatzen dute (Smith, 1991, 14-15 or.). Ekain Labaienek, Smithi jarraituz, horrela laburbiltzen du ideia hau: “Nazio identitatea ertz askotakoa da, klase, erlijio edo etnia identitateekin batzen da, eta baita ideologiekin ere, liberalismoarekin, faxismoarekin edo komunismoarekin, eta ezina da alderdi batera mugatzea eta hiritarrei bide artifizialekin errazki barneraraztea.” Labaienek berriro ere, Smithi jarraiki argi erakusten du alderdi kultural eta ikurren beharra: “nahiz eta nazioak politika erakundeez hein batean errotu daitezkeen, epe luzera begira etnia eta kultura osagaiak behar dituztela elkartasunezko komunitatea eratzeke, batik bat alderdi subjektiboetako nazio nortasun zentzuan daukan eraginagatik” (Labaien, 2014, 17 or.).

Nazio-identitatearen ertz ezberdinen zergatia identitate multipleen teoriak azaltzen du ondo. Pertsona orok identitate maila ezberdinak teilkatuz osatzen garela diosku teoria honek, hortaz ez da uniforme eta eksklusiboa. Talde-kirolak orokorrean eta futbola bereziki XX-XXI. mendeetan zehar identitate mailakatzeko ezberdinak aztertzeko benetan baliagarria da. Jeremy Maclencyk ederki laburbiltzen digu bere “Sport, identity and ethnicity” liburuaren sarreran fenomeno hau: “these sport-based identities are not necessarily exclusive (...) for people may have multiple identities either simultaneously, seasonally or consecutively” (MacClancy, 1996, 3 or.). Euskal Herriari dagokionez, interesgarria gertatzen da taldeek identitate probintzialarekin lortutako inbrikazioa. Lurraldeko ikur erreferentzialak bilakatu dira bai Athletic, Real Sociedad, Alaves eta Osasuna (De Pablo, 2012). Aldi berean, herri txikiagoetan futbol taldeak herriko ikur dira ezberrik gabe

Hala lurraldetasun honek ez ditu esanahi berberak banakako ororentzat. Batzuek probintziasuna Espainiara begiratzeko modu bat dute. Beste batzuentzat Euskal selekzioa izan beharko litzateke identitate nazionalaren aglutinatzailea (Erans. B). Noski, nazionalizatzeko modu hauek ez dira gizarteko eztabaida eta konplexuenetatik salbu geratzen eta herri eta probintziak erakusten dituzten arazoaren isla ere badira, nazio-gatazka gizarteko borroka bat gehiago besterik ez baita. Caspisteguiaren hitzak ederki ematen dute hori aditzera:

(...) la importancia del deporte en la configuración de los niveles identitarios en los que se han movido los seres humanos desde el siglo XIX; más allá del nacionalismo e regímenes totalitarios. Y además de ser una mera expresión del modernismo va más allá” (Caspistegui, 2012, 26 or.).

Ondorioz, modernistek arlo estrukturala eta nazioen eraikuntza soziala azpimarratzen dutela ikusi dugu, etnosinbolistek aldiz, nazio horren alderdi subjektiboari erreparatzen diote. Nahiz eta modernisten arrazoi estrukturalak existitzen direla onartu, kirola bezalako praktika sozial konkretuek nazionalismoa ardazteko sortzen duten sentimenduetan zentratuko gara. Era berean, eta izenaren gerra aztertzeko erabiliko den teoria Michael Billingsek (1995) kontzeptualizatutako *Banal nationalism* dugu. Postmodernismoak nazioak beraiek zalantzan jarri ditu, baina nazioen existentziaren iragankortasunari erantzunez, Billingsek diosku nazioak badaudela eta eguneroko sinbolo eta praktiken bidez erreproduzitzen direla. Ia ohartu gabe gure artean ditugun ikurren bidez ematen den fenomeno da. Bandera bat hemen, kirol selekzio bat han... huskeriak diruditen eta normaltzat hartzen ditugun elementuak osatzen dituzte hain zuzen ere. Ikur hauek nazioa egituratzeko balioa dute, hau da, abstrakzioetik materialtasunera ekarriz eta egunerokoan imajinario sozialaren erlazio imajinetikoa osatuz.

Hutsalkeria edo normaltasunaren ideien garrantzia da Billingsen tesitik erabiliko duguna, izan ere, Sebastian Balfour eta Alejandro Quirogaren (2007, 265 or.) esanetan, Billingsen teoria nazioa bera ezbaian jarri gabe dagoen eremuetarako dago egina. *Euskal Herria/Euskadiren* kasuan, Espainiaren ideien aurrean dagoeneko diskurtso alternatiboa osatuta dago, hortaz nazioa-estatuaren diskurtsoaren hegemonia zalantzan da. Hegemoniaren ideia ere garrantzitsua zaigu gainera. Antonio Gramscik hegemonia kulturari buruz idatzitakoekin bat gatoz kasu honetan. Gramscik gizartearen transformazio sozio-politikoaren eraldaketa aztertzeko fokua gainegitura jartzen du Hegemonia kulturalaren teoriarekin (1985). Bi zati ezberdintzen ditu

bertan. Alde batetik, estatua bere instituzioekin. Bestetik, gizarte zibila. Azken honek eratzten duen marko kulturala da gizartearen eraldaketa bultzatzen duena. Estatuak bere diskurtsua zabaldu eta ideia unibertsal bat sortzeko gai bada, *zabaldutako estatua* osatzen du eta indar politikoa duen klaseak du gizartearen nagusitasuna. Aldiz, gizarte zibileko sektore ezberdinak kapaz badira nagusitasun horren aurrean alternatibak sortu eta hura zalantzan jartzeko orden hegemonikoa ezbaian legoke. Euskal Selektzioaren inguruko eztabaidan, kapitalismoa eta orden sozialaren inguruko estruktura ez dira zalantzan jartzen. Kasua nazio auziari lotuago doa. Azken batean, bai *Euskadi* zein *Euskal Herria* defendatzen dutenek euskal selektzioa nazioartean ezarritako *statu quoan* nazioarteratzeko modu ezberdinak besterik ez dituzte adierazten. Hala ere, kulturatik politikara eramateko saiakera bat dago, eta aldaketa bat ere suposatuko lukeena, horregatik zaigu baliagarri bere tesia.

Michel Billingsen teoriak, zeharo hauspotu ditu 1990. urteko giro kulturalak eragindako nazio ikurren azterketak. Euskal nazionalismoen inguruko ikurren azterketak jarraikortasun askorik izan ez badu ere,<sup>2</sup> dagoeneko egin dago hasierako lana, tartean Gerra Zibilean izandako Euzkadi taldea eta *Euskal Herria/Euskadi* izenaren aferari buruzkoak irakur daitezke (De Pablo *et al.*, 2012).

Ikur nazionalak beraiek momentu batean eta bestean mezu eta esanahi oso ezberdinak izan ditzaketela argi dago. Betiere, diskurtso nazional baten estruktura barnean kokatu behar dira eta ondorioz ezinbestekoa da alde batetik, mezua bera aztertzea, baina baita nork helarazten duen ezagutzea ere. Azken batean diskurtsoak nazio indibiduoak nazionalizatzeko egiten baitira. Bi osagai hauek aztertzea da lanaren egitekoa. Horretarako, Alejandro Quirogak proposatutako markoa erabiliko da narrazio nazionalak aztertzeko. Hasteko, nazio indibiduoak hartu egiten duen kontzeptu bezala onartzen du. Instituzioek jaurtitako mezuetan indibiduoak subjektu aktibo bezala kontsideratzen ditu prozesuan, hau da, nazioa pertsonalizatu egiten duela diosku. Hiru elementuren etengabeko hartu-eman dago indibiduen nazionalizaztean. 1) mezua: narrazio nazionala, 2) bideak: instituzioak 3) hartzailea: pertsona. Harreman hauek hiru esferatan banandu daitezke. publikoa, semi-publikoa eta pribatua. Publikoa instituzioek igorritako mezua izango lirateke, semi-publikoak partidu politiko, federazioak eta arlo pribatua etxera eta lagun artera mugatzen du (Quiroga, 2013). Ikurrek nazioa bateratzeko duten balioa ederki laburbiltzen du Labaienek Smithen ideiei jarraiki:

Sinboloen erabilerak –bandera, moneta, ereserkia, uniforme, monumentua eta ekitaldiak– oroitarazten die partaideei partekatzen duten ondasunaz eta kultur antzekotasunaz, eta identitate sentipenez eta baterako partaidetzagatik indartuak eta goratuak senti daitezela bultzatzen du. Atxikipenak eskuratzen dituen taldea bihurtzen da nazioa, oztopo eta zailtasunak gainditzen dituen (Labaien, 2014, 18 or.).

---

<sup>2</sup> Eztabaida gehiena Euskal Ereserkiaren gainean izan da. Ikus. Arrieta, L. (2013). ¿Cuál es el himno de los vascos? *España Contemporánea*, 44, 7-27. eta Arrieta, L. (2016). Comunicando nación: el himno vasco y la transmisión de la identidad colectiva vasca. Hemen: J.M. Imizcoz eta J.A. Insausti. *Antes y después de la mass media* (221-237). Dykinson. 2020. urtean, Yparragirren 200. urteurrena zela eta oraindik ere bizirik zegoen eztabaida. Ikus. Gernikaren Arbola Euskal Abanderaren Ereserkia aldatzeko egindako arrazoiketa historiakoa Esparza, J.M (2020). *Biografía del Gernikako Arbola*. Txalaparta.

Talde edo sinbolo horrek nazioa gorpuzten du eta bere zati egiten gara hori esperimentatuz. Nazioaren narrazioaren zati bilakatzen den esperientzia bat gehiago osatzen dute selekzioen partidek.

## **Gaiaren egungo egoera**

Zati honetan, kirolaren inguruan dugun ikuspegia aztertuko da eta horri aztergai dugun gaiaren inguruko egoeraren laburpen txiki batek jarraituko dio. Zatiarekin bukatzeko, futbolaren eta euskal selekzioaren historia labur bat eskainiko dugu.

Gaur egun, kirolaren naturaltasuna defendatzea ez da erraza. Kirola gizartearen baitako beste kodifikazio bat da, hau da gure kulturaren beste zati bat. Horregatik, gizartearen logiketan uztartzen da eta bere isla ere bada hein handi batean. 1960-1980. hamarkada bitartean sortutako corpus akademikoak kirol kontzeptuaren desnaturalizaziora eramanez, eta XIX-XX. mendeen ikus ditzakegun kirol praktikak *kirol moderno* bezala ulertzea garrantzitsua da ikerketok. Aurreko praktikarekin alderatuz ezberdinak direla adieraziz, espresio moderno horretan zazpi ezberdintasun nabaritu zituen Allen Guttman (1978) “From Ritual to Record.” Besteak beste, errekorren nahia eta burokrasia (federazioen) sorrera nabarmenduz. Bestalde, Jean-Marie Brohmek bere lanean kapitalismoaren zantzuak nabari dizkio kirolaren egiturei, eta kirolean bizitzako estruktura berdinak erreproduzitzen direla argudiatzen du; gainera, kirola espektakulu bat bezala ikusten du kapitalismo aurreratuko gizartearen. Espektakulu horrek klase guztiak bateratzen ditu eta indarrean dagoen sistemaren integritate bilakatzen da: “Debido a las características mismas del espectáculo deportivo, la comunicación social en el deporte tiende a funcionar como un melting pot en el que acaban diluyéndose las particularidades concretas de los grupos, clases e individuos. El espectáculo deportivo opera así una especie de unanimidad masiva en las sociedades industriales avanzadas, en la medida en que se dirige a todos en general y a nadie en particular” (Brohm, 1982, 156 or.). Era berean, eta Gramsciren teoriari jarraiki, kirola indarrean dagoen sistemaren erreproduzitzailerik izan daitekeen bezala, kontrako bidea ere har dezake. Ez da aztergai dugun kasuan gertatzen dena.

Kirolaren ikuskera antinaturalista, eta kirol moderno bere momentu eta espazioko fenomeno espezifiko bat dela argi geratu da goian ikusitako bi lanekin eta ideia horiek kontuan dituzte, Xavier Pujadasek koordinatuta, “Atletas y ciudadanos” (2011). Liburu horrek 1870. urtetik aurrera Espainian jazotako kirol prozesua aztertzen du. Futbolaren bilakaera ere aipatzen da, amateurismo eta profesionalismoaren arteko tentsioak nabarmenduz eta futbolaren gorakada ikaragarria aztertuz. Espainiako kirol praktikatuena eta ikusiena bilakatu baitzen, batik bat 1920. hamarkadan eta zer esanik ez frankismoan; alabaina, benetako loraldia eta gaur egun duen esangura 1980-90. hamarkadetan hartuko du. Futbolaren kasu konkretua hobekien aztertu duena Alejandro Quiroga (2015) da, “Goles y Banderas” liburuarekin. XX-XXI. mendeetan zehar futbolaren bidez Espainiako narrazio nazionalaren ideia eta haren narrazio alternatiboak (katalanismoa eta euskal nazionalismoa) nola erabili diren aztertzen du, kirola eta nazionalizatzearen arteko harremanak sakonduz. Bide batez, aztergai

dugun afera ere laburki aipatzen du. Haren ustetan euskal nazionalistek izandako eztabaida bat da eskusiboki, lidergo kulturala noren esku geratzen den hain zuzen ere.

2007. urtean hasitako afera laburki aztertzen duen beste bat da, Jiri Zakravsky (2014). Euskal selekzioaren ibilbidearen historia laburra egiten du, eta gure gaia ere aztertzen du gehiegi sakondu gabe. Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) eta ESAITen arteko liskarra dela argudiatuz. Hala ere, Euskal futbol selekzioaren ibilbidea ondoen Jon Gotzonek (1998) aztertu du. Konbinatuak jokaturako partida guztiak barne biltzen ditu eta bakoitza bere testuinguruan aztertzeaz gain, nahiko informazio eskaintzen digu. Besteak beste, 1980. hamarkadatik aurrera partiden aurrean Espainiar estatuan sortutako erresistentziak azalaraziz. Selekzioen ideiarekin bukatzeko, ezinbestekoa da Ekain Labaienen lana. Euskal nazioa kirolaren bidez bere osotasunean, Iparralde eta Hegoaldearen artean, bateratzeko ezintasuna ikusi du historian zehar. Hegoaldean eliteak futbolaren alde egin duten bitartean, Iparraldean kirol hegemonikoa errugbia da eta (Labaien, 2016). Horrez gain, bere doktorego tesia ere interesgarria zaigu. Era diakronikoan aztertzen du euskal futbolaren historia bere sorreratik XXI. mende arte. Nazio identitateak, futbolak eta masa komunikazioaren arteko harremanak sakonduz. Tartean, Euskal Herrian espainiar selekzioak izandako arrakastaren baitan, 2008ko Eurokopa eta 2010 Mundiala, espainiartasuna zabaltzeko saiakera aztertzen du. Bere ustez ez zen arrakastatsua gertatu, ez baitzuen Euskal Herrian sustraitzea lortu. Ildo honetan, eta gaingiroki bada ere, Martxelo Otamendik (2022) berriki Berrian egindako adierazpenak interesgarriak zaizkigu. Haren iritziz, Espainiar selekzioak 2022. urtean Katalunian eta Galizian jokatzeko hautuak Espainiar estatua birnazionalizatzeko prozesuaren saiakera baten barnean txertatzen du.

Euskal futbolaren historia aztertzerako garaian, aipatutako Quiroga, Labaien eta Gotzon salbu, zeinak diakronia osoan jartzen duten arreta, bi periodo nagusi bana ditzakegu. Alde batetik, XIX. mende bukaera eta XX. mende hasieratik Gerra Zibil arteko garaia ikertu dituztenak eta gerra osteko garaian zentratu direnak. Bestalde, eta *Real Federación Española de Fútbol*en (RFEF) babespean *Centro de Investigaciones de Historia y Estadística del Fútbol Español*ek (CHIEFE) 2009. urtetik aurrera *Cuadernos de Fútbol* izeneko hilabetekari bat argitaratzen hasi da, eskusiboki espainiar futbolari buruz. Tartean badaude hainbat erreferentzia euskal futbolari zuzenduak. Hilabetekariaz gain, editorial bezala funtzionatzen du eta hainbat liburu interesgarri ere eskaini dizkigute.

Lehendabiziko garairi dagokionez, John Walton (1999, 2001, 2011), Javier Diaz-Noci (2000) eta Peter Molnar (2013) azpimarratu behar dira. Waltonek Real Sociedaden ibilgua aztertzen du, 1909-1936 bitartean eta bere ondoriok hurrengo hitzetan ederki laburbiltzen ditu: “It depicts the response of a dominant bourgeois group in San Sebastián, proud to be Basque but falling far short of nationalist (...) commitment, cosmopolitan, open to new ideas and eager to promote the tourist industry, to the excitements, opportunities and seductions offered by this imported game” (Walton, 1999, 287 or.) Waltonek turismoaren garrantzia eta burgesiaren internazionalismo jartzen ditu erdigunean futbolaren sarrera azaltzeko. Identitateari dagokionez euskal

probintzialismoaren aipatzen du eta ideia berbera sakontzen du 2001. urtean idatzitako artikuluan, Athletic eta Real Sociedaden arteko hasierako norgehiagokak aztertuz. Aldiz, Diaz-Nocik 1920-30 hamarkadetan euskal nazionalismoak futbol eta pilotaren inguruan izandako begiradak ikertzen ditu. Garaiko prentsaren azterketaren bidez bi kirolek euskal nazionalismoren barnean izandako tentsioak azaleratuz. Diaz-Nociren hitzetan gehienbat eremu hiritarrean praktikatzen zen futbola. Garai hartan nazionalismoak saltzen zuen interklasismoa bultzatzeko balio izan zion. Ia eskusiboki gizonezkoek praktikatzen zuten eta beraien *gentleman* maskulinoaren identitatea osatzeko balio zien. Bukatzeko, Peter Molnárrek Diaz-Nociren artikuluan futbol eta nazionalismoaren inguruan aipatutako tentsioak sakontzen ditu.

Gerra Zibil garairi dagokionean, Fernando Estombak (2007b) argitaratutako lana da erreferentzia nagusia. Euskal Autonomia Gobernuak, Euzkadik, aurrera eramandako kultura politikaren baitan eraturako Euzkadi konbinatuaren analisi desmitifikatu bat egiten du. Estombak (2007a) egindako tesian ikertu zuen lehendabizikoz gaia, nahiz eta kasu honetan Bizkaiako kirolaren historia soziala aztertzen duen, II. Errepublikaren baitan. Tesi honetan, eta aurretik Santiago de Pablarekin egindako lan batean (Estomba eta De Pablo, 2002) egindako arrazoiketa berbera jarraitzen du, hau da, kirol anglosaxoi modernoaren modeloa hirian garatzen den bitartean, landa eremuan euskal joko tradizionalak erresistentzia handia erakusten dute, nahiz eta azkenean hiri eremuko influentziak gailendu

Bigarren garaiari dagokionez, esanguratsua da ia-ia lan guztiak Athletici buruzkoak direla, ziurrenik euskaldunez bakarrik osatzen den mitoaren berezitasunak erakarrita. Gainera, beste bi azpi-ataletan banandu daiteke garaiak. Frankismoa eta trantsiziotik gaur egunera artekoa. Hala ere, badaude bi garaiak barne hartzen dituzten lanak. Maria Vackziren “*Soccer, Culture and Society in Spain*” (2015) da horietako bat. Etnografiaren ikuspuntutik Athleticetako zaleak aztertzen ditu. Futbola eta identitate ezberdinei buruz ari da lanean, nazio-identitate eta futboleko maskulinitate *chauvinistak* hizpide dituelarik. Vackzik (2017) berak Espainiar selekzioaren paper nazionalizatzailea aztertu du bere diakronian. Bertan, nazioa *gorpuzteko* modu ezberdinak identifikatzen ditu eta Euskal zein Katalan herrietan sortzen dituen tentsioak adierazi. Interesgarri zaigu, Jon Susaeta Athleticetako jokalaria 2012. urtean Espainiar selekzioarekin joan zenean izandako eztabaida. *Espainia* hitza erabili beharrean *gauza bat* deitu zion, eta Espainia ez esatearren kritika gogorak jazo zituen. Horrek adierazten digu izen batek gorpuzten duen indarra edo aztergai dugun kasua erabat berdina ez bada ere analogia bezala erabil dezakegu.

Frankismoren garaian zentratuz, Alejandro Quirogak Francoren diktadurak Athletic elementu propagandistako bezala erabili izana argudiatzen du. Zentralismoa bultzatu beharrean, nazionalismo Frankistak Espainia erregiotik ardazu zuen, eta probintzia eta erregiotako taldeek garrantzia izan zuten eremuko identitateak identitate nazionalarekin batera integratzeko. 1970. hamarkadan nazionalismo zentralista honen aurreko erresistentziak nabari ditu, eta ez bakarrik euskal nazionalismo alternatibo batetik, Espainia ulertzeko

beste modu deszentralizatu bat zutenengatik ere. Horregatik, Athleticen jarraitzaile askok, gehiengoak, identitate dualak, espainola zein euskalduna erakutsi izan dituztela adierazten du (Quiroga, 2019).

1980. hamarkada du aztergai Jeremy MacClancyk (2003). Athletic Bilbo, Bizkaia eta baita Euskal Herriko ikur bezala aurkeztu ostean, Athleticen gainean EAJ eta Herri Batasunak (HB) duten lehia aztertzen du. Bi alderdien diskurtsuan Athleticen beraien nazionalismo etnosinbolista eguneratzeko aukera ematen die, iraganera begiratur oraina osatzeko. Biek ala biek nahi dute eskuratu Athleticen gaineko hegemonia politikoa. Adibidez, gerentziaren bidez, Beti Duñabeitia eta EAJren erlazio zuzena aipatzen du, gerentziaren bidez Athletic kontrolatu izan du EAJk. Aldiz, HBk gerentziara heltzeko aukerari izan ez arren, Andoni Egibar atezainaren irudia erabili izan du. Hala ere, MacClancyren ustez, eta bazkideen erresistentzia dela eta ez EAJk ez HBk ez dute Athleticen sinbolismoa beraien interesez eksklusiboetarako taxutzea lortu,:

los socios quieren que sea. El Athletic, como la Virgen de Begoña, la santa patrona de Vizcaya, tiene que estar por encima de las afinidades políticas. Se supone que representa a todos los vizcaínos, y al mismo tiempo a todos los vascos, no a una parte de ellos (MacClancy, 2003, 152 or.).

Bestalde, eta 2000. hamarkadan, Athleticen eta Euskal Selekzioaren arteko zaleen dimentsio sozio-politikoa aztertzen dituzte Jorge Tuñon eta Elisa Breyk (2012), tartean Euskadik, Kataluniak eta Galiziak selekzio nazional bat izan dezaketean galdera aztertzen dute. Adierazgarria da benetan euskal alderdi nazionalistak (Eusko Alkartasuna (EA) eta EAJ) babesten dituzten boto-emaileak, argi eta garbi egiten dutela euskal selekzio bat izateko aldarria (%90etik gora). Gainera, Ezker Batuko (EB) gehiengo zabal bat ofizialtasunaren alde dago (%62,7). Aldiz, Alderdi Sozialistaren (PSOE) masak kontrako jarrera bat agertzen du (%41,1) nahiz eta aldeko batzuek ere badituen (%32,4). Partidu Popularreko (PP) gehientsuenak ideia honen kontra agertu ziren (%59,3). Ezker Abertzalearen inguruko alderdiei, ezta Aralarako hautesleei ez zaie galdetzen inkesta horretan (Erans. C).

Esan bezala, Athleticen buruzko lanak dira nagusi eta hor dugu Juan Carlos Castilloren lana (2007), non Athleticen filosofia aztertu duen eta Marc Grovesek (2011) egindako auto-etnografia. Zoritxarrez, garai honetarako Real Sociedad edo Osasunaren inguruko monografia handirik ez dugu (Huarte, 2020). Aldiz, eta aipatuko dugun azken lanak, John Walton eta Santiago De Pablarenak (2012) Alavesi egiten dio erreferentzia. Historian zehar Alavesen probintzialtasun identitarioari so egin ostean, globalizazioak ekarritako arazoak aztertzen dituzte bi egileek. Dmitry Pitermannek, klubaren erosleak 2002-4 bitartean Alavesek zeukan museo proiektua merkantilizatzeko saiakera aztertzen du, bertan Pitermannen Dali kolektio erakusteko.

Ikus daitekeenez, futbolaren inguruan lan asko egin da jada, eta aztertzen ari garen 2007ko eztabaida aipatu izan da aztertutako lan askotan. Hala ere, guk sakonago aztertuko dugu hura, izen baten alde edo kontra erabilitako arrazoiak aztertuz eta marko sinbolikoaren testuinguru politikoan ezarriz.

## Euskal futbol selekzioaren historia laburra

Euskal Herrian futbolaren historiaren nondik norakoak izango dira hizpide hurrengo atal honetan. Gehienbat, 2007. urtera arte, Euskal Selektzioaren historia aztertuko bada ere, futbolaren historia labur batekin bustiko dugu, selekzioaren bidearen azterketa ezinbestekoa baita Euskal Selektzio ezberdinen osaketa ulertzeko.

Lehenengo atal honetan, futbolaren hasierako urteetatik Gerra Zibil garai artekoa ikusiko dugu. Euskal lurraldeetan futbola XIX. eta XX. mendeen bueltan hasiko da ezartzen. Ingalaterratik etorritako *sporten* baitan ulertu behar dira futbolaren lehen adierazpenok; erabat amateurak eta kirol anitzeko klubetan baitan antolatutako kirolariak praktikatu dituzte hasiera batean, betiere hirietako burgesiaren soziabilitate moduetan oinarriturik. Pixkanaka eta Ingalaterran izandako prozesu merkantilistarekin imitatu, 1920. biran masa-kirola bilakatzen hasiko da. Amateurismoa krisi bete-betean sartuko da eta profesionalismoaren etorrerak futbolearen aritzen diren espektro soziala handituko du. Orduan hasiko da futbola euskal gizartearen orokortzen eta, batik bat, Errepublikaren baitan hedatuko da.

Bigarren zatian, frankismoaren hasieratik gaur egundainoko ibilbidea laburki aztertuko da. Indartsu hasiko da futbola Gerra Zibil ondoren, eta pixkanaka kirol ekitaldien monopolio eskuratzera joango da. Sortzen dituen pasioak gero eta gehiago merkantilizatzen diren bitartean bere erabilera politikoa, askotan ia nabaritzen ez dena, areagotu egingo delarik.

1889ko ekainaren 29an mariñel ingeles osatutako bi taldek, Barmston Rangers eta Abydos, Nina, Dawdon eta Harven ontzietako konbinatua, arituko dira nor baino nor gehiago Bilbon. Hau izango da Bilbon ezagutzen den lehen partida. Barmston Rangersek 2-1 irabazi zuen (Arrechea, 2013). Bilbo eta Ingalaterraren arteko harreman komertzial estuen adierazgarri den espresio hau, ez da baina futbolaren ezarpenaren bidea izango.

1890. hamarkadan zehar, hainbat futbol partidei buruzko notiziak irakur daitezke Bizkaiko prentsan. Tartean ingeles eta Bilboko burgesietako kideek osatutako klub ezberdinak jokatuak: Club Atleta Deportivo Astillero eta Bilbao FC. Bi klubak desegin egingo dira hamarkadaren erdi aldera, eta futbolarik bide berdina jarraituko du. Espainia osoan zehar antzeko prozesu ez jarraiak emango dira. Futbolaren lehen espresioak agertu arren, azaleratu bezain pronto galdu egiten direlarik (Arrechea eta Lartaun, 2021). Bazirudien futbolarik ez zuela Espainian etorkizunik. Ikusi bestela, Emilia Pardo Baztanen hitzak 1896an “foot-ball, que aquí, por otra parte, no ha cuajado ni lleva trazas de cuajar nunca” (Pardo, 1896).

Oker zebilen Pardo Bazan eta XX. mende hasieran pixkanaka-pixkanaka gero eta klub gehiago sortuko dira. Ziurrenik Ingalaterran ikasitako burgesia lokaleko kideak hauspotutako erakundeak dira. Bilbon esaterako, *Athletic* (1901) eta Donostian 1904 *Vasconia* (1904) edota *Club Ciclista de San Sebastian* (1909). Hasierako klub hauek euskal lurraldeetako, Madrileko eta Bartzelonako hirietan ezarriko badira ere, pixkanaka penintsularen azalera osoan zehar zabaltzen joango dira.



1911. urte inguruan Galiziako herri bakoitzeko klub bat zegoela diosku Pardo Bazanek, eta berdina gertatzen da Euskal Herrian. Adibidez, Gipuzkoako herri txiki batean, Deban, 1913. urterako *Or-nauk* izeneko talde bat ikus dezakegu (Erans. D). Talde hau osatzen duten erdiak Errepublikan eta Frankismoan zehar Debako alkate izango dira, eta horrek argi erakusten digu gehienbat herriko eliteek jokatzen zutela. Kide hauen afizioa hiriburuetan eskaintzen hasiko diren hezkuntza programaren ondorio izan liteke. XX. mende hasieran Euskal Herriko eskola katoliko ezberdinak formazio integralaren ideia integratzen hasi ziren. Formazio holistiko horretan hezkuntza fisikoa beharrezkotzat jotzen zen hezkuntza akademiko eta espiritualarekin batera. Era honetara afizionatu zen Orduñako ikastetxe jesuitan Jose Antonio Aguirre lehen euskal lehendakaria. XX. mende hasierako argazkiek ere eskoletan futbolearen aritzen zirela adierazten digute. Besteak beste, Donostiako Maristen eskolan umeak futbolearen jokatzen ikus daitezke, eta Tuterako San Frantzisko Xabier ikastetxean antolatutako talde irabazlearen argazkia ere badugu 1913-4 denboraldirako (Erans. E; Erans. F).

Hasierako klub horiek eta beraiek elikatuko dituzten jarduleak antolatzen hasiko dira Espainia mailan eta kirol modernoaren logikak jarraituz (emaitzaren bilaketa, arrazionalizazioa, instituzionalizazioa...) instituzionalizazio prozesu bat abiatuko da. Erregearen Kopa lehendabizikoz 1903. urtean jokatuko bada ere, hamar urte itxaron behar dira RFEF osatzeko. Aurretik, RFEF osatuko duten federazioetako batek *Real Union de Clubes de Football Españolek* Irunen 1913ko maiatzak 25ean antolatuko du lehendabizikoz nazioarteko partida bat Frantziaren aurka. Jose Angel Berraondo hautatzaile eta partidako epailea izan zenak, gehienbat euskal jokalariz osatu zuen espainiar selekzioa (Arrecha, 2021).

Instituzionalizazio prozesu hau eta konbinatu ezberdinen artean jokatutako partidak ez dira nazioarteko mailara zedarrituko eta federazio erregional eta probintzialak osatzen joango diren heinean beraien artean partidak jokatzen hasiko dira. Adibidez, 1914an Gipuzkoa eta Bizkaiko selekzioek euren artean partida bat jokatuko dute (*Selección Vizcaya*, 1914; Irrintzi, 1914). *Selección Norte* izeneko konbinatu bat ere arituko da 1915 eta 1916an. Lehen partida 1915eko urtarrilaren 3an 6-1 irabaziko dio Kataluniari, eta huraxe hartu izanda Euskal selekzioen aitzindari nagusia (Gotzon, 1998). Hala ere, konbinatu honetan Kantabriarrak ere aritu zitezkeen eta Espainia barneko federazioen arteko lehiaketan baitan ulertu behar dira. Hasierako selekzio hauek ez dute inongo kontzientzia nazionalik espainiarraz haratago.

Futbolaren hedapenaren jakitun, euskal nazionalismoa azkar hasiko da esparru honetan mugitzen. Adibidez, 1910an Jose Maria Belausteguigoitia (Diaz-Noci, 2000, 6 or.) EAJren futbol saileko buru zen. Berau izango da Espainiar Selektzioaren lehen agerraldi internazionalaren buru, 1920ko Ambereseko Olinpiar jokoetan. Zilarrezko domina eskuratuko dute eta urte luzez gogoratuko den balentria izango da. *La furia roja* deituko diote batzuk. Euskal jokalariz osatuta zegoenez *furia vasca* deituko dio MacClancyk (2003). Espainiar selekzioaren aritzea eta euskal nazionalismoa erabat bateragarriak ziren garai hartan.

Joko Olinpikoek garai hartan zuten izaera kontuan izanik, kirol ingeles amateurren eredua zuten begitan Ambereseko konbinatu hartan parte hartu zuten euskaldun gehienek. Ez zuen iritzi berdina Alejandro Sotak, 1912-1918 bitartean Athleticeko presidente izango zenak, profesionaltasunaren alde baitzegoen. Haren

ustetan, futbola gizarte modernoa demokratizatze bidea zen. Masa guztiak bateratzeko eremu inter klasista, non energia fisikoa kodifikatzen zen ezarritako erregelen bidez, bulkada biolentoak eragotziz (Aresti, 2017). Sotaren begirada positiboak ez du euskal nazionalismoaren erabateko kontsentsua. Gehienbat burgesia hiritarrak du gustuko atzeritartzat hartzen den kirol hau. Hirietan izango duen onspena, ez du landa eremuan izango, hasieran behintzat, non pilotak eta joko tradizionalak onarpen handiagoa izango duten (Diaz-Noci, 2000).

Sotak babestutako eredua, aurreko hamarkadan kimutzen hasitako profesionalismoa, 1920. hamarkadan gailenduko da, erresistentziaren bat bizirik mantenduko bada ere. Hasiera batean galdutako journalak ordainduko zaizkie jokalariei, baina gero eta masa kirol garrantzitsuagoa bilakatzen ari dela, mugituko den diruak amateurismoa profesionalismoak ordeztuko du. Adibide esanguratsua da Belaustegieta bera beti izan zela amateurra. Real Unioneke Pepito Echeveste dugu beste adibide garbi bat. 1926an *Gipuzcoa Aristocratica* aldizkarian egindako *interview*ean egindako adierazpenak. Pesetarik kobratu ez izana omen da bere poztasun handienetako bat. Gainera, Espainian profesionalismoa oso errotuta dagoela diosku, eta Real Union, Arenas de Getxo eta Atletico Madril bakarrik dira amateurismoaz gozatzen dutenak lehen mailan (Holmes, 1926).

Futbola negozio bilakatzen ari den garai honetan 1921ko maiatzaren 22an San Mamesen arituko da euskal konbinatu bat West Hamen aurka. Ikusmin handia sortu zuen Pichichi ezagunaren azken partida baitzen. Haren omenaldiaren aitzakiaz jokaturako partida 0-1 irabazi zuen talde ingelesak. Prentsan West Ham *profesionalak* zirela azpimarratzen dute (A., 1921; Pompeyo, 1921).

Bestalde, Amberesen *furia rojaren* oihartzuna baliatuz, eta W. Martin Harris entrenatzaileak zuzendurik 1922. urtean euskal espedizio bat abiatuko da Argentina, Uruguai eta Brasil aldera (Martinez, 2013). Real Sociedad, Real Union, Esperanza, Tolosa, Athletic eta Arenas de Getxon jokatzeko dauden jokalariei Frantzia exiliatuta dagoen Belausteguigoitia gehituko zaie. Atsedeen faltak eta dibergentzia politikoak medio, ez da abentura arrakastatsua izango. Badirudi taldeko arazoak euskal nazionalismoaren ikusmoldearen inguruko ezberdintasun politikoetatik zetozela (Relaño, 2001, 50-1 or.). Abentura honen helburu dirua gitea zen.

Beste zortzi urte gehiago itxaron beharko ditugu euskal konbinatu baten berri izateko. Ordurako estreinatu da dagoeneko Espainiako Ligaren lehen denboraldia, 1928-1929. denboraldian. Hurrengo 10 taldeek osatutako txapelketa da: Kantabriako Racing, Madrilgo Real eta Athletic de Madril, Bartzelonako, Espainol, Barcelona eta Europa, eta Euskadiko, Athletic, Arenas, Real Sociedad eta Real Union. Ligaren sorrerak argi erakusten digu profesionaltasunaren alde izan zen eboluzioak, eta Primo de Riveraren diktadurak eta Alfontso XIII. erregeak babestutako prozesua izateak ere estatuak justifikatu eta indartzeko kirolaren erabileraren beste zantzu bat da. Gainera, taldeak jatorri geografiko eta sozio-ekonomikoa aztertuta ez da zaila Espainiak futbolaren sarrera non izan zuen ikustea, Barcelona, Madrid eta euskal lurraldeak izanik futbolaren irradatzaile nagusiak. Gogoan izan behar da hiru eremu hauetatik kanpo dagoen Santander Bilbotik oso gertu dagoela eta Donostia bezala Espainiako eliteen udaldia igarotzeko lekua dela.

Kirolak gainera, konponente politiko handi bat hartuko du Primo de Riveraren diktadurapean. Diktadurak jazarririk zegoen euskal nazionalismoaren zati batek estatuko lehen kirol kazeta osatuko du,

*Excelsior* 1924. urtean. Abertzaletasunaren jazarpenaren aurrean, kulturen babestu zen korrante euskalduna eta kazeta mugimenduaren bozgorailu ofiziosoa bilakatu zen (Labaien, 2014, 57). Entzute handiko kirol ekitaldiak antolatu zituen kazeta honek Euskal Herriko bira esaterako.

Errepublika etorri aurretik, 1930 eta 1931. urteetan Euzkadi-Cataluynaren arteko bi *match* izan ziren. Joseba Gotzonen hitzetan (1998, 34) topaketok bi nazioen arteko anaitasuna indartu zuten. Egia esan, *El Día* egunkari donostiarrak Athletic eta Bartzelona taldeek irekitako “corrección y amistad-en” jarraipena dela dio eta Excelsiorrek partida aurretiko kronikan honela dio: “Cataluña y Vasconia en lucha que ha de ser una muestra más de la fraternidad que existe entre amibas, vienen a disputarse la hegemonía del fútbol nacional.” Euzkadik “matches interregionales” azpтитulupean idatzi zuen partidari buruzko berria, eta benetan zentzu horretan ulertu beharreko topaketak dira. Are gehiago bigarrena zeinetan Bizkaiko Federazioak Espainiako Federazioari partidara etortzeko gonbita luzatzen dion (*En Un Encuentro*, 1930; *Euzkadi-Cataluyna*, 1930; *Euzkadi-Cataluyna* 1931; *El Gran Match*, 1931).

Errepublika garaian, Vasconiaren izenpean beste bi norgehiagoka gehiago jokatu ziren, baina kasu honetan jokalaria bati omentzeko lehiak izan ziren. 1932ko ekainaren 24 eta 25ean Bartzelonak, Athletic, Irun, Donostia, eta Madrileko, azken hiruek Real aurrezkoa galduta, jokalariek osatutako konbinatuak Jose Etxebeste Galparsoro (1899-1982) Real Unioneko jokalaria omentzeko bi partida antolatu zituzten. 1926. urtean amateurra izateaz burgoitzen zen berbera (*El Homenaje*, 1932; *Última hora*, 1932b).

1931-1936. urte bitartean, Espainian izandako transformazioak kirolean islatu ziren. Euskal nazionalismoak zeharo egin zuen gora bosturteko honetan, batik bat Gipuzkoa eta Bizkaian, eta kirolak rol garrantzitsua jokatu zuen igoeran. Herri mailako Kirolzaleak izeneko batzorde ugari sortu zituen EAJK, eta beraien arteko lehiaketak egin. Futbolearen ere aritu ziren, eta futbola politizatu bazen ere, ez zen Euskal Selektzioaren partidarik izan garai honetan guk dakigula.

1936ko uztailaren 17ko arratsean, Espainiar armadaren zati handi bat Melillan altxatuta piztu zen Gerra Zibila. Dagoeneko kontsolidatuta zegoen Espainia mailako Liga eta Kopa eten egin baziren ere (Olmo, 2019), 32 hilabete iraungo zuen guda honetan arrazoi ezberdinak medio futbola presente izan zen. Helburu propagandistakoa eta diru-bilketak egiteko beharrak izan ziren futbol partidak antolatzeko motore nagusiak.

Gudak eztanda egin eta gutxira estatu eta lurralde mailako federazioak berrantolatu egin ziren. Adibidez, 1936ko abuztuaren 8an Gipuzkoako Federazioak Donostian batzar berri bat aurkezten du; bestalde, dirua biltzeko partida ezberdinak antolatzen dira. 1936ko irailak 6an Eibarko Fronte Popularra Elgoibarko Lerun futbol zelaian futbolari ezagunez osatutako bi talderen arteko norgehiagoka antolatzen du. Partida honen kronikan, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko norgehiagoka bat iragarri zen irailaren 20rako (Echaluze, 1936a; 1936b).

Bilbon ere hainbat partida jokatu ziren. Adibidez, dirua biltzeko asmoan Kantabria/Asturiasen aurka bi partida jokatu zituen Euskal selektzio batek 1936ko abenduan. Partidu politikoen arteko partidak ere jokatu ziren.

EAJ eta ANV hiru aldiz aritu ziren nor baino nor gehiago, nabarmenena 1937ko otsailaren 7an jokatu zena. Kasu honetan abiazioa erosteko lemapean 20.000 lagun inguru bildu ziren, eta Jose Antonio Aguirre, lehendakaria, eta bere kontseilariak dirua eskuratzeko gain, propaganda bainu ederra hartu zuten partida hartan. Partida horien arrakasta ekonomikoak bultzaturik, Manu Sotak buru zuen komisio batek selekzio bat osatuko du, Euzkadiren izena munduan zehar zabaltzen zuen bitartean gerrak eragindako diru beharra asetzeko asmoz (Estomba, 2007b). Selekzioa osatuko duen gehiengo zabal bat sortu berria zen Ertzaintzakoak ziren. Hortaz, EAJren oso gertuko jokalaria alegia. Anekdotak bezala, jokalaria horiek gerraren hasieran Getxon Britaniako ontziteriako V. flotaren selekzio bati sekulako jipoia eman zioten, 11-0 irabaziz.<sup>3</sup>

Euskal gobernuaren fronte-kulturalaren parte izango den Euzkadi taldeak estreinakoz 1937ko apirilaren 26an jokatu du Parisen. Pragan, Moskun eta Norvegiar ibili ostean, eta Bilbao galduta, Kuban eta Mexikon ere arituko ziren, munduan zehar euskal arazoa zabaltzeko gain, euskal errefuxiatuentzat dirua biltzeko helburuz. Esan ohi izan denaren aurka, ez da zinez selekzio bat izango, talde bat baizik. Seguraski FIFAREN politikaren aurka ez joateko hartutako neurria da. FIFAREN politikan estatu bakoitzak selekzio bakarra izan dezakeela dioskuna hain zuzen ere. FIFAK berak presio egin zuen behin eta berriz euskal konbinatuaren aurka. Esaterako, 1938ko martxo eta maiatza bitartean taldeak Argentinan zituen konpromisoak ezin izan zituen bete. Futbol erakundeak ez zien Argentinako klubei baimenik eman partidak jokatzeko. FIFAK ezarritako hesiek taldea ia dirua gabe utzi zuten. Gainera, talde barneko tentsioek taldekideren bat edo beste Espainiara itzuli edo Argentinan geratzera eramane zuten (Estomba, 2007b).

Talde honen azken abentura Mexikoko Ligan izango da, Club Deportivo Euzkadi izenpean arituko da 1938/9 denboraldian. Nahiko denboraldi itxurosoa egin zuen, azpitxapeldunak izan eta inpresio bikaina eskainiz. Badirudi, taldearen partehartzeak Mexikoko profesionalismoaren aitzindari eta bultzatzaile bezala ikusi dutela ikerlari batzuek (Zamora, 2010). Gure lanerako ezinbestekoa den erreferentzia da talde hau. Lehen aldiz, euskal nazioaren kirol ordezkari bat mundu mailan lehian aritu baitzen.

Euzkadi taldea hiltzarekin batera ez da euskal selekziorik izango denbora luzez, eta antzeko esanahi batekin eratutako futbol selekzio bat ikusteko lau hamarkada itxaron beharko dira. Frankismo garaian zehar hainbat euskal konbinaturen berri badaukagu, baina betiere, futbolari bateri omenaldia egiteko partidak dira.

Ezaguna da Frankismoak berak futbolaren inguruan egindako erabilpena. Gerra Zibila bukatu berri, berehala hartu zuen futbolak aurretik zuen garrantzia. Momentu horietan Espainiartasuna gori-gori zegoen eta futbola bera prozesu nazionalizatzailearen parte egitea erabaki zuten agintariek. Ramon Serrano-Suñer Barne Ministroak 1940. urtean agindu baten bidez *vocablo extranjero* guztien erabilera galaraziko du. Hortaz ezin Athletic Club deitura ingelesa erabili. Athleticen izenaren kontua ez da beraz, hasiera batean behintzat euskal nazionalismoaren aurka egindako mugimendu bat.

---

<sup>3</sup> Euskadiko Artxibo Historikoa. Luis Ortuzar Funtsa. 62 paper-sorta. <https://dokuklik.euskadi.eus/badator/visor/067/0006> "En Ertzaña había diez de los once del equipo de España así que no necesitábamos mas que buscar un guardameta."

Nazionalizatzeko modu hau ez da erabat zentralista izango, eta Espainiar identitatea erregiotatik ardaztukoenez futbol taldeek garrantzia handia hartuko dute. Atletico de Bilbaok biziko duen loraldiak bizkaitar, euskal eta espainiar identitateak uztartzeko eramaile bikaina bilakatuko da (Quiroga, 2019). Horrez gain, erritual propio bat ere eratu zuen erregimenak kirol ekitaldietarako: agur faxista egitea derrigorra zen. Bigarren Mundu Gerra bukaera arte iraun zuen (Shaw, 1987, 189 or.).

Hala ere, eta futbola gizartearen islaenez, 1970. hamarkada inguruan Espainiartasun frankistaren aurkako erresistentziak nabaritzen hasiko dira futbol zelaietan. 1967an Errealaren zuzendaritza hartu zuen Jose Luis Orbegozok, eta txartelak gazteleraz ez ezik euskaraz saltzen hasi zen (Shaw., 191 or.). Adierazpen esanguratsuen, 1976ko abenduaren 5ean Real Sociedad- Athletickek jokatuak derbian izango da. Oraindik bi kapitainek zelaira aterako ikurriña eragotzitako sinbolo bat zen (Erans. F). Agerkera honek, dagoeneko mozioan zegoen kanpainari bultzada eman eta 40 egunetara onartu zuen Espainiako barne ministro zen, Manuel Fragak ikurriña.

Ordurako, Euskal lurraldeetan Espainiartasunarekiko errelatu alternatibo bat osatzen zebilen, zeina trantsizioaren baitan indartu egingo zen, eta orduantxe, Euskal kulturaren aldeko mugimenduak gori-gori zeudenean jokatu da berriro ere, 1979ko abuztuaren 19an, Euskadiko selekzioaren partida bat. Sutraiak elkarteak antolatutako Bai Euskarari mugimenduaren baitan, Irlandaren izango da aurkari. Antzeko helburuarekin, 1979ko abenduaren 23an Bulgaria hartuko du euskal konbinatu batek. Bi partidak jai giroan, eta euskal ereserki eta sinboloen festa bilakatuko dira. Aldiz, 1980ko abuztuaren 3an Mendizorrotzan jokatuak den norgehiagokan 9.000 pertsona besterik ez dira gerturatuko. Probintzien arteko euskalduntasun sentimendua bizitzeko forma ezberdin adierazgarria da ziurrenik. Ildo beretik, Osasunak, arrazoi politikoak medio, ez zizkion konbinatuari bere jokalaria utzi. Nafarroako alderdi gehienek EAErekin Gernikako Estatutuan integratzeari muxin egin zioten 1977an, eta euskal selekzioa bi komunitateak integratzeko elementu arrotza bezala ikusten zuten.

1988ko maiatzaren 5ean erreplika izango dute aurretik aipatutako partidek eta Bateginik elkarteak ikastolen alde diru biltzeko antolatu zuen beste partida bat, Tottenhamen aurka. Urte horretan bertan sortuko da EFF. Sortu zenerako, futbola benetan sustraituta zegoen bai Espainian eta Euskal Herrian. 1980. hamarkadan gero eta nabarmenagoa zen futbolaren presentzia gizartearen. Prentsan gero eta denbora gehiago eskaintzen zitzaion, bai idatzian, irradian zein telebistan, eta partidu politiko ezberdinak horren jakitun futbolaren inguruko prentsa kontrolatzen saiatu ziren (Quiroga, 2015, 113-115).

Joera horrek gora egin zuen 1990. hamarkadan, eta Espainian ez ezik mundu mailan emandako fenomeno da. Arrazoiketa politikoaz haratago, eta presentzia omnipresente horri esker, gero eta diru gehiago mugitzen zen negozioa zen. Gainera, 1995ko Bosman kasuari eskerrak momentuko mundu mailako merkatuko logikei egokitu zen. Hortaz, EFFk antolatutako partidak futbolak aurretiaz izan zitzakeen inplikazio politikoak biderkatu zituen.

EFFk 1990. urtean partida bat antolatzen badu ere, lehen mailako klub nagusien eta bestelako erresistentziak gainditu ezin dituela nabarituta ez du lortzen urtero partida bat antolatzea, aharik eta 1993. urtean hasi eta etenik gabe 2007. urte arte gabonetan jokatzen zen partida usadio bilakatzen duen arte. Ez da ahaztu behar 1993. urtean jokatzen hasitako partida guztiak Espainiar Federazioak onartuta jokatzen direla, eta aitzakia, edo benetako helburua batzuentzat, lortutako diru sarrerak EFFk bere baitako taldeen artean banatzea dela. Gainera, euskal nazionalismoko sinboloak kontrolatzen saiatzen dira, adibide garbiena da FIFAK, 1993. urtean euskal ereserkia jotzea galarazi zuela (Labaien, 2014, 100-101).

Hurrengo urteetan, ofizialtasunaren bidean, hainbat pausu ematen dira, partida hauek izan ditzakeen aldarrikapenetik haratago. ESAIT plataforma, 1995. urtean sortzen da, gehienbat Ezker Abertzalearen munduari lotutako taldea. Era berean, eta EAJ, EA, EB eta HBk bultzatuta Euskal parlamentuak Kirolaren Legea onartzen du (1998). 16. artikuluan hala dio legeak: “Euskal federazioei baino ez dagokie euskal kirol federatua Estatuan eta atzerrian ordezkatzeko, bakoitza bere kirol aldaeran. Beraien kirol selekzioek Estatuko eta nazioarteko kiroleko ekintza eta lehiaketetan parte-hartzea sustatu eta bideratu beharko dute euskal federazioek.” 1990eko Espainiar legearekin bateraezina dela iritzita Espainiar Gobernuak Konstituzionalari helegitea jarri eta honek ez zuen 2012 arte erantzun. Bertan Espainiaren aurka arituko ez den kiroleraren errepresentagarritasuna izan dezakeela ebatzen du, futbolaren kasua ez dena alegia (Lazaro, 2012). Hortaz, 2007. urtean afera gertatzen denean ez zegoen epai irmorik honen inguruan, eta badira esperantzak marko legal batean selekzio bat izateko.

Euskal selekzioaren historia laburbilduz, 1910-20. eta 1930. hamarkada hasieran jokatu zituen partidak erregioen arteko norgehiagokak edo jokalariren batek futbola ustean egindako omenaldiak ziren. Aldiz, 1937. urtean osatutako taldeak, askoz ere esangura politiko handiagoa du. Gerra Zibil testuinguruan Euskal Gobernuaren fronte kulturalaren parte izan zen. Sortu berri zen Euzkadiko gobernuarentzat dirua-bildu eta euskal auzia munduan barrena zabaltzeko helburua zuen. Hortaz, euskal selekzio propio baten erreferente bezala ezarri daitekeen lehen espresioa da. Gerraren ostean, eta Frankismoan zehar izan ziren hainbat euskal konbinatu omenaldi ezberdinetan parte hartu zutenak, baina 1979. urtera arte itxaron behar da euskal konbinatu bat berriro zelaian ikusteko, eta lehen helburua euskara sustatzeko dirua biltzea bazen ere, duen asmoa beste erreferente egoki bat bilakatzen du. Hala ere, 1993. urteaz geroztik gabonetan jokatzen hasten den partida, tradizio berri baten sortzaile da, gabonetako usadio bilakatzen dira partidok, eta marko legalean diru biltzera bideratuta badaude ere, benetan aldarrikapen bat ezkututzen dute atzean.

## **Afera**

2007ko abenduak 27an, Miren Azkarate Euskal Gobernuako kultura kontseilariak, Generalitateko lehendakari-ordeak, Josep Lluís Carod-Rovirak, eta Xuntako Kultura eta kirol kontseilariak, Axela Bugallok, San Mamesko adierazpena deritzona sinatu zuten. Euskadi, Katalunia eta Galiziako autonomiek Kirolaren kompetentzia eskusiboki gobernu autonomoen esku zegoela aldarrikatu zuten bertan. Eskaera honekin hiru autonomiek maila internazionalen selekzioak aurkezteko eskumena aitortzea nahi zuten (VascoPress, 2012). Esanguratsua da partida honen aurretik Espainiar Futbol Federazioak erakutsitako erresistentzia eta ia jokatzea

galarazi ziona (Suarez, 2007). Arratsaldean, *Euskal Herria* izenpean Kataluniako selekzioaren aurka berdindu egin zuen Euskal futbol konbinatuak (ESAIT, 2007).

Aste pare bat lehenago, *Euskadi* izendapenaren aldaketaren berri izaterakoan, EAJko lehendakari hautatu berria, Iñigo Urkullu eta Iñaki Anasagasti parlamentaria gogor oldartu ziren haren aurka. Urkulluk Anasagastiri bidalitako mezuan Ezker Abertzaleko sektoreen presioari men egitea egozten zion EFFko lehendakariari:

Quiero manifestar ante quien le interese y para lo que proceda, a título personal, mi contrariedad histórico política por el cambio en la denominación Euskal Herriaen lugar de Euskadi de la Selección Vasca de fútbol. Y, sobre todo, contrariedad ética por deberse a una actitud de presión orquestada y protagonizada por determinados jugadores (Anasagasti, 2007).

*Euskadiren* erabilera argudiatzeko arrazoiketa historikoak eta lurraldearen errepresentagarritasunaren aitortpena erabili zituzten:

supone aceptar las tesis de la izquierda abertzale y abandonar una designación que se utiliza desde los años 30, cuando se organizó una Selección de Fútbol de Euzkadi (...) «Euzkadi» engloba, según Anasagasti, «a todo el pueblo vasco» y no sólo a las tres provincias que conforman la Comunidad Autónoma Vasca (L. A, 2007).

EAJren sektore guztiak, baina, ez zetozen bat erantzun irmo honekin, hasiera batean behintzat. Lehendakariak, Juan Jose Ibarretxek, auzia eztabaidagarria zela adierazi ostean, garrantzia kendu eta izena baino azken helburua, hau da, ofizialtasunaren garrantzia azpimarratzen du. Era berean, EFFk garrantzia kentzen dio izendapen berriari (Olaberri, 2007). Urkulu eta Anasagastiren ideiarekin bat datoz, PSOE eta PPK, zeinak “aquellarre nacionalista” eta “orgia de radicalidad” bezala ulertzen duen 2007ko partida (Rodriguez, 2007).

Aldiz, izenaren aldaketa ESAIT koordinadoraren babesa jaso zuen, eta ez da ahantzi behar ez dela Ezker Abertzalearen mundua *Euskal Herria* izenaren alde agertzen den bakarra. Garai hartan EA eta EB ere planteamendu honen alde agertzen dira, biak ala biak EAJren gobernuakide.

2007ko partidatik 2008ra bitartean eztabaida gori-gorian egon zen. Euskal Gobernuak *Euskal Herriaren* izenaren aurkako ofentsiba mantentzen du bere Kirol Zuzendaria den Jose Ramon Garai izanik *Euskadi* izenaren defendatzaile sutsuena. Hasteko, *Euskal Herria* izendapenaren aldaketaren hautua EFF dagokion batzordeek beharrean EFFko lehendakariak egin izanak aldaketaren baliozkotasuna zalantzan jartzen du. Gainera, 1998ko kirol legeari so egin eta ofizialtasunerako bidea, EFFren bitartez egin beharra azpimarratzen du. Selekzioak federazioak ordeztu dituzte eta ez estatuak. Horregatik, euskal autonomia gobernuaren marko juridikoan txertatutako Euskal Federazioaren kanaletatik egin beharra azpimarratzen du, hortik *Euskadiren* izenaren garrantzia (Kirol Zuzendaritza, 2008).

Idea hauekin bat dator Federazioa 2008ko abenduan jokatzekoa zen Iranen aurkako partida bertan behera uzten duen komunikatuan. Bertan argudiatzen du *Euskadi* izendapenak legalitatea ez ezik, marko sozialean kontsentsu handiena erakusten duen deitura dela; alabaina, *Euskal Herria* izen ofiziala izango ez bada ere, jokalarien eskariei jaramon eginez, partidaren zehar banatuko diren sarreretan eta kamisetan izendapen hori erabiltzeko disposizioa agertu zuen (Euskal Herria-Pays Basque, Basque Country) eta Zazpiak Baten sinboloa ere bertan izango zen (Euskal Futbol Federazioa, 2008) . Zoritxarrez, ez zen nahikoa izan jokalarientzat eta Euskal Herriko Futbolariak plataformapean sinatu zuten 165 futbolariak 2008ko azaroaren 13an hartutako erabakiari irrimo eutsiz:

Beraiek [EFF eta Euskal Gobernua] hartu dute atzera egiteko erabakia, beraiek dira emandako hitza bete ez dutenak eta orain, haiei dagokie zuzentzea. Hala ez bada, gu ez gara partida jokatzera joango. Eta beraiena izango da ardura (Gorriti, 2008).

798 kirolarik osatutako Euskal Herriko Kirolariak plataformak, jokalariei babesa agertuko zien. Tartean, Joseba Beloki, Martin Fiz edota Mikel Odriozola bezalako kirolariak aurkitzen ditugu, baita lurralde guztietako kirolariak ere (EFE agentzia, 2008). Kirolari guzti horiez gain, ESAIT plataforma futbolariekin lerratuko da behin eta berriro, eta izenaren aldaketa ezaren atzean ofizialtasunerako konpromisu politiko eza dagoela adieraziko du. Jose Ramon Garairen presioak salatuko ditu gainera (EFE agentzia, 2008).

Era berean EAJk gogor egingo du ESAITen aurka. Juan Antonio Arieta Araunabeñak izenaren aldaketari buruz dio aldaketak ez duela aurrerakuntzarik eskaintzen, atzerapausoak besterik ez. *Euskadi* izenaren legitimitate historikoari egiten dio so, eta izen aldaketak, hau da, *Euskal Herria* deiturak, 1998 Euskal legeari oztupoak jartzen dizkiola argudiatzen du. Euskal Herriko federazio bat sortzearen ezintasuna gaineratuz bukatzen du (Arieta, 2008). Jokalarien aurka ere izan ziren mezuak, adibidez EAJren gaztediak, EGIk, *Euskadi* izena defendatzeko arrazoiketa historikoa, 30 hamarkadari erreferentzia eginez, erabiltzen dute eta jokalariei ausardia eskatzen die, Espainiar eta Frantziar selekzioei uko egitera animatuz (Euzko Gaztedi Indarra, 2008). Azkenean batzuek besteei errua bota eta 2008an ere ez zen partidarik jokatu. Ildo berean, baina nahiko bestelako testuinguru batean, 2009an ere ez zen atera euskal selekzioa bere zaletuen aurrera jokatzera.

Eztabaida hortaz, *Euskadi* eta *Euskal Herria* izenaren erabilpenaren baitan kokatu zen. Bata edo bestea aukeratzeko argumentuak hurrenkera honetan laburbildu ditzakegu:

**EUSKADI:**

Aldekoak:

- Erreferentzia historiko konkretu bat: izaera politikoa izan duen lehen gobernuaren izena da, eta haren baitan antolatu zen taldea.
- Kontsentsu zabalena duen izena euskal gizartean orohar.
- 1998. Kirol Legeak ezarritako bide ofizialetatik joateko bide egokiena, EFFren baitako izena baita.

Kontra:



- Egun Euskal Autonomia Erkidegora zedarrituta dagoen kontzeptua da askotan.
- Euskadi hitza EAJren ondasun eksklusibista da.

## EUSKAL HERRIA

### Aldekoak

- Zazpi probintziak errepresentatzen dituen marko soziokulturala osatzen du.

### Kontra:

- Ezker Abertzalearen inposizio bat omen da.
- 1998. Kirol Legeak ezarritako bide ofizialetatik kanpo utziko luke.

Arrazoiak eskaini ostean, goazen izenaren atzean ezkututzen dena pittin bat argitzera. Arieta jaunak azaldu duen bezala, *Euskal Herria* deituraren aldaketak ez du inongo aurrera pausu praktikorik eskaintzen ofizialtasunaren aurrean, baina ba al du inongo atzerapausorik? Zergatik horrelako haserrealdia?

Izenaren aldaketak berak ez du ezer aldatzen, Federazio batek berak erabaki dezake zein izen erabili. Egia da eztabaida honen tartean eskaintako arrazoiketetan selekzioaren ofizialtasunerako bideei buruzko informazio eta moduek aurkezten direla, baina zoritxarrez, badirudi eztabaidaren muina izenera mugatzen dela gehienbat. Nahiko sinbolikoa dena. Ekain Labaienek ederki laburbiltzen du hurrengo hitzetan:

Nazio proiektuak alderatzeko balio izan du euskal selekzioaren auziak azken urteetan horientzat. Izendapenetik bertatik hasita, nazioa besteen aurrean eta bere baitan definitzeko adostasun ezak eta nazioaren lurraldetasunari buruzkoak euskal nazioaren zehaztu ezina eta askotariko atxikimenduen arteko akordio eza ikusarazten dit (Labaien, 2014, 103).

Aurreko hitzek adierazten duten moduan, ezadostasunaren gakoa euskal selekzioaren esanahian dago. Ez dago adostasunik Euskal Selektzioa narrazio nazionalean txertatzeko, eta izen batek edo besteak nazionalizatzekeo modu bat edo beste eskaintzen duela esan daiteke.

Bere jatorri historikoak direnak direlarik, gaur egun, orohar, Euskadi hitza hiru lurraldeetara zedarritzen da, eta EAJrekin lotzen da. EAJren sortzaile zen Sabino Aranak sortu zuen eta EAJren presidentetza zuen gobernu batek erabili zuen ofizialki lehendabizikoz. Aldiz, *Euskal Herria* hitza, lehendabizikoz XVI. menderako erabiltzen bada ere, Jose Enparatza, *Txilardegik* berreskuratzen du 1990. hamarkadan. Txillardegik ETaren sortzaileetako bat da, eta nazio auziaren egoera ikusita, *Euskal Herria* terminoa berreskuratzen du zazpi lurraldeak hartzen dituela iritzita (Bidegain et al, 2021). Azkar orokortzen den terminoa da Euskal Herriarena eta Meesek (2012, 316 or.) EAJko Euskadi Buru Batzarren akta eta komunikatuak aztertu ostean adierazten du Euskal Herria hitza barneratuta zuela 2000. hamarkada hasierarako. Nolatan orduan halako eztabaida?

1990. hamarkada bukaeran, EAJk bide subiranista hartuko du berriro ere. 1998ko legeari, 1999ko Lizarrako akordioak jarraituko dio. Terrorismoaren akabera ekartzeko hitzarmena da, non ETA eta estatuari

negoziatzeko eskatzen zitzairen. Akordio honek alderdi abertzaleak batu zituen, eta joera aberkoiak sustatu. Ez zen zoritxarrez ondo bukatu. Hala ere, bide berri baten seinale zen, are gehiago, 1999. hauteskundeetan Ibarretxek irabazi zuenean. Hauteskunde horiek konstituzionalismoaren baitan irabaztea espero zuten PP-PSOEek, baina ez zitzairen ondo atera, eta ondorioz, hasita zuen bidean sakontzea erabaki zuen EAJk, 2003ko Ibarretxe plana aurkeztuz. Espainiar barneko euskal estatu bat izateko plana zen, baina ez zuen Espainiar kongresuaren bermea jaso. Bide berri honek, boto ematearen aldaketa bat ekarri zuen, eta EAJk galdutakoa HBri igortzen zaiola dirudi 2005ko hauteskundeetan. Hortaz, independentziarako joerak HBri egin zion mesede.

Datu hauek buruan, EAJk ezin zuen onartu berea zen sinbolo bat galdu eta dagoeneko berak abian zuen prozesuaren gainean (Konstituzionalak ez zuen oraindik ebatzi 1998 Euskal Legearen zilegitasunari buruz) beste berri bat abiatzea, are apurtzaileagoa. *Euskal Herria* izena ez bazen gailentzen bi bide itxiko zituen *Euskadi* hitza mantentzearekin EAJk. Lehendabizikoa, EAJ berak berea zen sinbolo bat mantenduz, bere hegemonia kulturala nabarmentzen du. Bigarrena, posibilismoaren bandera aldarrikatzea da. 1998ko legeak eskaintako aitzakiaz, bide konstituzionalista hautatzen zuen. Ofizialtasunaren aldeko sektoreak baretzen ditu bitartean, aldi berean, bere sektore estatualistei so egiten die, EAJk ofizialtasuna estatuaren akordioen bitartez eskuratu zezakeela adieraziz.

*Euskal Herria* terminoa hobesten duten beste alderdiek bide apurtzaileago bat bilatzen dute. Egia esan, praktikotasun gutxi duen entelekia bat aldarrikatzen dutela esan daiteke hein handi batean. Hala ere, sinbolismoak garrantzia handia du, eta dagoeneko EAEko jokalariez gain, beste komunitatekoei deitzen bazaie, *Euskadi* izena mantentzea kontraesankorra dela uste dute. Izendapen honen atzean ere hautu politikoa argia da, eta Gramsciren ideiei jarraiki aldaketa politikoak ezin dira eman eremu kulturean gailentzen ez bazara, eta aldaketa horretan dute mira izen aldaketarekin.

## **Ondorioak**

EFFk antolatzen duen selekzioaren izenaren harira izandako eztabaidak argi adierazten du gizartearen tentsioak futboleant nola islatzen diren edota, hobeto esanda, partidu politikoen nola saiaturen diren euren era eta interesetara moldatzen futbol selekzioak izan dezakeen esanahia. Izendatzeak sortu egiten du, izendatzeak aurrean duguna esanahitzen du eta izenak errelato imajinario bat eskaintzen digu, hau da, nazioa narratzen hasteko aukera bat. Aztergai dugun kasuan, euskal nazionalismoan barnean dauden bi joera ezberdinen erakusle da. Halere, proiektuaren oinarriak beraiek baino, alderdikeria da gehien nabarmentzen dena eta bi izenen azpian selekzioak euskal nazionalismoaren barnean duen kapital sinbolikoa eskuratzeko saiakera nabari daiteke. Zorionez, eztabaida 2010. urtean bukatu zen, eta ez bata, ez bestea ez da gailendu. Azkenean, erdi bidean geratu da borroka egun Euskal selekzioa izenpean jokatzen baitu euskal konbinatuak.

Gutxieneko akordioa erdietsi bada ere, ezin da ahaztu partidu politikoen euren interesei dagozkien izenpean jarri nahi izan zutela lurraldeko ikur bilakatu den futboleko selekzioa. Alde batetik, EAJ kokatzen da *Euskadi* hitzaren atzean, eta beste aldean kokatzen dira Ezker Abertzalea (Aralar barne) EA eta EB. PSOE eta PP eztabaidan asko murgiltzen ez badira ere EAJrekin egiten dute bat, izendapenari dagokionez, nahiz eta izena

mantentzeko arrazoiak ezberdinak izan. Arrazoi horien artean kokatzen da izendapen bakoitzari ematen dioten esanahia. *Euskal Herria* izenak Nafarroa eta EAEn batasunarekin lotzen duten bitartean, *Euskadi* EAEn zedarritzen da. Azken bi alderdi hauek egun duten proiektu politikoari ez zaie interesatzen EAE eta Nafarroaren arteko erlazioak indartu eta bi lurraldeak batzea. Ondorioz, eta Alejandro Quirogaren azaldutako markoak adierazten digun bezala, nazionalizatzeko eztabaida hau eremu publiko eta semi-publikoetatik hasi eta norbanakoraino heltzen da.

Esan bezala, izen bat edo beste izan narrazio nazional ezberdin bat osatzeko bidea ematen du, hau da, nazionalizatzeko modu bat edo beste eskainiz. Adibidez, *Euskadi* izenarekin Sabino Arana eta 1936ko Euskal gobernu nabarmentzen dira aitzindari bezala. Gainera, izen horrekin EAJren presentzia nabarmentzen da erabat, partidu honekin asoziatzen baita zuzenean. Hala ere, egundik begiratuta eta lurraldekotasunari dagokionez, EAEn zedarritzen da. Euskal Herria izenarekin lurralde marko zabalago bat bilatu nahi da, Nafarroa eta batik bat Iparraldea integratzen saiatuz. Eremu kulturala politizatzeko saiakera garbia dago izendapenaren atzean.

Ikur nazionalak esentzializatzen eta puru egiten saiatzen gara etengabe. Baina ikurrak ez dira inoiz puruak. Atzera begiratzean erreferenteak bilatzea zaila ez bada ere, kontuan izan behar da testuinguruaren arabera esanahi oso ezberdinak dituztela. Futbolaren praktikak berak ere ez du esanahi bera eta gaur egungo selekzioak *Euskadi* izenpean jokatu edo 1936. urtean jokatu zuen jokalarik eta afizionatu baten esperientziak erabat ezberdinak baitira.

Gozategiren kanta batekin bukatuko da lana. Badirudi, euskal selekzioaren izena bete betean asmatu zutela 2000. urtean.

“Euskal selekzioak

Nortasunaren deia

Gure selekzioak

Munduari begira

Euskal selekzioak

Gure gureak dira (Gozategi, *Euskal Selekzioa*, 2000).”

## Erreferentziak

- A. (1921, maiatzak 5). Un match de emoción. *Euzkadi*, 7 or.
- Aguirrezabala, P. (Ed.) (1996). *Amaikak-ta Futbol Taldea. 50. urteurrena*. Ona.
- Anasagasti, I. (2007, abenduak 13). Gana el sector más sectario y anticonstitucional de HB en la selección vasca de futbol. [https://ianasagasti.blogs.com/mi\\_blog/2007/12/gana-el-sector.html](https://ianasagasti.blogs.com/mi_blog/2007/12/gana-el-sector.html)
- Anderson, B. (1991). *Imagined Communities: Reflections on the Origin and Spread of Nationalism*. Verso.
- Aresti, N. (2017). El gentleman y el bárbaro: Masculinidad y civilización en el nacionalismo vasco (1893-1937). *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 39, 83-103.
- Arieta, J.A. (2008, abenduak 1) ESAIT: un Fraude historico. *Diario de Noticias de Alava*. <https://www.eaj-pnv.eus/es/documentos/8332/esait-un-fraude-historico>
- Arrechea, F. (2013). Primera crónica periodística de un partido de futbol jugado en España. *Cuadernos de Futbol*, 39.
- Arrechea, F. eta Azurmendi, L. (2021). El Club Atleta de los Astilleros del Nervión (1889-1894) y el Athletic Club de Bilbao (1901-) *Cuadernos de Futbol*, 132.
- Arrechea, F. (2021). 25 de mayo de 1913. El primer partido de la Selección Española de Fútbol. *Cuadernos de futbol*, 129.
- Arrieta, L. (2013). ¿Cuál es el himno de los vascos? *Spagna Contemporánea*, 44, 7-27.
- Arrieta, L. (2016). Comunicando nación: el himno vasco y la transmisión de la identidad colectiva vasca. Hemen: J.M. Imizcoz eta J.A. Insausti (Ed.). *Antes y después de la mass media (221-237)*. Dykinson.
- Balfour, S. eta Quiroga, A. (2007). *España reinventada. Nación e identidad desde la Transición*, Península.
- Bidegain E., Maguregi, Z. eta Larrañaga A. (2021) *Izan ala ez Izen?* Txalaparta.
- Billings, M. (1995). *Banal nationalism*. Sage
- Brohm, J. (1982). *Sociología política del deporte*. Gustavo Gili.
- Caspistegui, F. J. (2012). Deporte e identidad, o sobre cómo definirnos. *Historia y Comunicación Social*, 17, 19-39.
- Castillo, J.C. (2007). Play fresh, play local: The case of Athletic de Bilbao, *Sport in Society*, 10(4), 680-697.
- De Pablo, S. (2012) Fútbol e identidad local. Un estudio de caso: Dmitry Piterman y el museo del Deportivo Alavés. *Sancho el Sabio, extra 3*, 235-257.
- De Pablo, S. , Casquet, J.M., Mees, L. eta De la Granja, J.L. (Ed.). (2012). *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Tecnos.
- Diaz-Noci, J. (2000). Los nacionalistas van al fútbol: Deporte, ideología y periodismo en los años 20 y 30,” *Zer Aldizkaria*, 9(5), 357-394.
- Echaluze, J. (1936, irailak 6). Grandísimo partido de Futbol en beneficio del Frente Popular de Eibar. *Frente Popular*, 3 or.
- Echaluze, J. (1936, irailak 9). En el partidillo benéfico del Domingo la selección (B) vencio a la selección (A), por cinco a cuatro. *Frente Popular*, 3 or.

EFE agentzia (2008, abenduak 19). ESAIT dice que los futbolistas han hecho lo posible por jugar contra Iran. *El Confidencial*. [https://www.elconfidencial.com/deportes/2008-12-19/esait-dice-que-los-futbolistas-han-hecho-lo-posible-por-jugar-contra-iran\\_933248/](https://www.elconfidencial.com/deportes/2008-12-19/esait-dice-que-los-futbolistas-han-hecho-lo-posible-por-jugar-contra-iran_933248/)

Elustondo, L.M. (2020, abenduak 14). FIFAKo idazkaritzari gutuna. [http://documentos.deia.eus/2020/12/16-Carta\\_FIFA.pdf](http://documentos.deia.eus/2020/12/16-Carta_FIFA.pdf)

El gran match Cataluña- Vasconia. (1931, urtarrilak 1). El gran match Cataluña- Vasconia. *Excelsior*, 1 or.

El homenaje a Echeveste.” (1932 ekainak 25). *Euzkadi*, 4 or.

En un encuentro pobre, la Selección Vasca vence a la catalana. (1930, ekainak 10). *El Día*, 11 or.

Estomba, F. eta De Pablo, S. (2002). Deporte y sociedad en el País Vasco durante la II República. De diversión amateur a espectáculo profesional. *Cuadernos de Alzate*, 27, 155-177.

Estomba Etxepare, F. (2007a). *Deporte, política y sociedad en Vizcaya: Afición y espectáculos en la segunda república y en la guerra civil*. [Doktorego-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea].

Estomba Etxepare, F. (2007b). El equipo Euzkadi: Del mito político a la realidad histórica (1937-1939), *Historia Contemporanea*, 35, 791- 816.

Esparza, J.M. (2020). *Biografía del Gernikako Arbola*. Txalaparta.

Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea, ekainaren 11koa (1998).

Euskal Futbol Federazioa (2008, abenduak 13). Suspension del partido de selecciones Euskadi-Iran <https://eff-fvf.eus/doc/noticias>

Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldea. (2007, irailak 9) Con motivo de la polémica del partido entre Euskadi y Catalunya. <https://www.aupaathletic.com/nota-de-prensa-de-esait/noticia/5313/SUSPENSION%20DEL%20PARTIDO%20DE%20SELECCIONES%20EUSKADI.pdf>

Euzkadi-Catalunya. (1931, urtarrilak 1). *Euzkadi*, 6 or.

Euzkadi-Catalunya se jugó el domingo en Montjuich. (1930, ekainak 10). *Euzkadi*, 6 or.

Euzko Gaztedi Indarra (2008, azaroak 14). Euskal Herriko futbolariak. *Berria*. <https://www.eaj-pnv.eus/fr/actualite/20117/egik-euskal-herriko-futbolariak-plataformaren-erab>

Europa Press. (2022, apirilak 1). Urkullu lamenta el rechazo de la FIFA a la oficialidad de Euskadi y ofrece toda la ayuda a la Federación Vasca. *Europa Press*. <https://www.europapress.es/euskadi/noticia-urkullu-lamenta-rechazo-fifa-oficialidad-euskadi-ofrece-toda-ayuda-federacion-vasca-20220401145625.html>

Euskal Kirol Zuzendaritza (2008, abenduak 18). Nota de Prensa. [https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco//contenidos/nota\\_prensa/garai\\_euskadi\\_iran/es\\_kirolak/garai\\_euskadi\\_iran.html](https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco//contenidos/nota_prensa/garai_euskadi_iran/es_kirolak/garai_euskadi_iran.html)

Gellner, E. (2009). *Nazioak eta nazionalismoa*, Klasikoak.

Gorriti, A. (2008, azaroak 13). Los jugadores se niegan a jugar bajo otra denominación que no sea Euskal Herria. *Gara*. <https://gara.naiz.eus/paperezkoa/20081114/106483/es/Los-futbolistas-niegan-jugar-bajo-otra-denominacion-que-no-sea-Euskal-Herria>

- Gotzon, J. (1998). *Euskadiko Futbol Selektzioaren Historia – Historia de la Selección de Fútbol de Euskadi 1915–1997*. Ediciones Beitia.
- Gozategi. (2000). Euskal Selektzioa, *Egunon-en*
- Gramsci, A. (1985). *Cuadernos de la cárcel*. Instituto Gramsci.  
[https://www.abertzalekomunista.net/images/Liburu\\_PDF/Internacionales/Gramsci\\_Antonio/Cuadernos\\_de\\_la\\_carcel-Completo-6\\_Tomos-PAGINADO.pdf](https://www.abertzalekomunista.net/images/Liburu_PDF/Internacionales/Gramsci_Antonio/Cuadernos_de_la_carcel-Completo-6_Tomos-PAGINADO.pdf)
- Groves, M. (2011). Resisting the globalization standardization and rationalization of football: my journey to Bilbao. *Soccer and Society*, 12, 265-278.
- Guttmann, A. (1978). *From ritual to record. The nature of modern sport*. Columbia University Press
- Hobsbawm, E. (1982). Introduction. Hemen: E. Hobsbawm eta T. Ranger. *The invention of Tradition* (1-15). Cambridge University Press.
- Hobsbawm, E. (1990). *Nations and nationalism since 1780: Programme, Myth, reality*. Canto.
- Iragarki, afixa eta errotuluetan Atzerriko hitzak erabiltzea eragozten duen agindua, maiatzaren 16koa (1940). Irintzi (1914-12-14). El match en San Mames. *Euzkadi*.
- Izarrra. J. (2020, abenduak 16). EL giro del PSOE sobre la selección vasca de futbol. *El mundo*.  
<https://www.elmundo.es/pais-vasco/2020/12/16/5fda6da2fdddf94ad8b4633.html>
- Izquierdo, I. (2016, abenduak 5). El día que atotxa legalizo la Ikurriña, Diario Vasco <https://real-sociedad.diariovasco.com/noticias/201612/05/atotxa-legalizo-ikurrina-20161205004307.html>
- L.A. (2007, abenduak 16). Euskal Herria contra Euskadi. *Diario Vasco*.  
<https://www.diariovasco.com/20071216/politica/euskal-herria-contra-euskadi-20071216.html>
- Labaien, E. (2013). Futbola nazionalismoen biziraupenaren isla globalizazioan eta estatunazioen boterearen zaindaria. *UZTARO* 84, 89-104.
- Labaien, E. (2014). *Futbola eta nazio eraikuntza Euskal Herrian eta Espainian*. Utriusque Vasconiae.
- Labaien, E. (2016). Euskal nazio garaikidearen azterketa futbol-ekitaldiaren bitartez. *Uztaro*, 96, 67-86.
- Lazaro, J. (2012, apirilak 20). El constitucional avala las selecciones vascas si no compiten contra España. *El País*. [https://elpais.com/politica/2012/04/20/actualidad/1334949126\\_870335.html](https://elpais.com/politica/2012/04/20/actualidad/1334949126_870335.html)
- Holmes (1926). Figuras populares. Pepito Echeveste. *Guipuzcoa Deportiva y Aristocrática*, I, 20 or.
- MacClancy, J. (1996). *Sport, Identity and Ethnicity*, Berg.
- MacClancy, J. (2003) Nacionalismo en juego: los vascos de Vizcaya y el Athletic club de Bilbao. Hemen: F.X. Media, F.X. eta R: Sanchez. *Culturas en juego: ensayos de antropología del deporte en España*. (137-157). Icaria.
- Martinez, V. (2013). Primera gira americana de una selección vasca. *Cuadernos de Futbol*, 40.
- Mees, L. (2012) Euskadi/Euskal Herria. Hemen: S. De Pablo, J.M. Casquet, J.M. Mees eta J.L. De la Granja. *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. (294-319). Tecnos.
- Molnár, P. (2013). Un fenómeno exótico para la tradición vasca. La incorporación del foot-ball en el nacionalismo cultural vasco. *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, 20, 291-315.

- Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen dekretua 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa (2015).
- Olaberri, D. (2007, abenduak 21). Ibarretxe asegura que el cambio de nombre de la selección vasca puede ser “discutible.” *El Correo*. [https://www.elcorreo.com/vizcaya/20071221/politica/ibarretxe-asegura-cambio-nombre-20071221\\_amp.html](https://www.elcorreo.com/vizcaya/20071221/politica/ibarretxe-asegura-cambio-nombre-20071221_amp.html)
- Olmo, J. (2019). El torneo Copa España libre, Ricardo Cabor y las actas de la FIFA. *Cuadernos de Futbol*, 115.
- Otamendik M. (2022, urtarrilak 3). Espainiako Selekzioak gureetan. *Berria*, 5 or.
- Pardo, E. (1896, uztailak 6). Vida contemporánea. Polo. *La Figura Artística*, 466 or.
- Pompeyo (1921 maiatzak 24). El último de la temporada. *El liberal*, 2 or.
- Pujadas, X. (Ed.) (2011). *Atletas y Ciudadanos. Historia Social del deporte en España 1870-2010*. Alianza Editorial.
- Smith, A. (2009). *National Identity*. Penguin.
- Smith, A. (2009). *Ethno-Symbolism and Nationalism: A cultural approach*. Routledge.
- Txapelpunk (2000). Euskadi. Txapelpunk-en.
- Quiroga, A. (2013). La nacionalización en España: Una propuesta teórica. *Ayer*, 90, 2, 17-38.
- Quiroga, A. (2015) *Goles y banderas: Futbol e identidades nacionales en España*. Marcial Pons.
- Quiroga, A. (2019). Así también se hace patria: Fútbol y franquismo en Cataluña y el País Vasco (1939-1977). *Hispania Nova*, 17, 269-302.
- Relaño, A. (2001). *El fútbol contado con sencillez*. Maeva.
- Rodriguez E. (2007, abenduak 28). Giro “abertzale” en la selección vasca. *El País*. [https://elpais.com/diario/2007/12/28/espana/1198796415\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2007/12/28/espana/1198796415_850215.html)
- Selección Vizcaya, contra selección Guipuzcoa. (1914, abenduak 14). *El Pueblo Vasco*, 3 or.
- Shaw, D. (1987). *Futbol y Franquismo*. Alianza
- Suarez O. (2007, irailak 8). La Federación y FIFA no darán permiso para el Cataluña-EEUU. *El Mundo*. <https://www.elmundo.es/elmundo/2007/09/08/espana/1189237232.html>
- Tuñón, J. eta Brey, E. (2012) Sports and politics in Spain: Football and nationalist attitudes within the Basque Country and Catalonia, *European Journal for Sport and Society*, 9(1-2), 7-32.
- Ultima hora deportiva: Partido en beneficio de Etxebeste. (1932, ekainak 26). *Euzkadi*.
- Vaczi, M. (2015). *Soccer, culture and society in Spain: an ethnography of Basque fandom*. Routledge.
- Vaczi, M. (2017). Their Skin in the Game. The Basque, the Catalans and the body politic of the Spanish National football team. Hemen A. Bariner, J. Kelly, eta L. Jung Woo (Ed.). (174-183) Routledge.
- Vasco Press. (2007, abenduak 29). Catalunya, Euskadi, y Galicia firman una declaración en favor de las selecciones deportivas. *El periódico*. <https://www.elperiodico.com/es/politica/20071229/catalunya-euskadi-galicia-firman-declaracion-5501685>
- Viñas, S. (2020, abenduak 15). La selección de Euskadi solicita formalmente su oficialidad ante UEFA y FIFA. *El Mundo*. <https://www.elmundo.es/deportes/futbol/2020/12/15/5fd9146dfc6c83af798b4660.html>

- Walton, J. (1999). Football and Basque identity: Real Sociedad of San Sebastián, 1909-1932. *Memoria y Civilización*, 2, 261-289.
- Walton, J. (2001). Basque Football rivalries in the twentieth century: Real Sociedad and Athletic Bilbao. Hemen: G. Armstrong eta R. Giulianotti. *Fear and Loathing in World Football* (119-33). Berg.
- Walton, J. (2011). Sport and the Basques: Constructed and Contested Identities, 1876-1936. *Journal of Historical Sociology*, 24(4), 451-471.
- Zakravsky, J. (2014). Basque National Football Team as a Political Tool. One Hundred Years Old Project and Its Changes (1915–2014). *Sport Science Review*, 25, 5–28.
- Zamora, G. (2010). *El equipo de Futbol Euzkadi en México 1937-1939*. [Lizentziatura lana, Universidad Autonoma de Mexico].



